



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko irailaren 28a

94. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubi-deei eta betebeharrei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (23. or.).
- Foru Lege proposamena, Jagoletza Partekatuari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (43. or.).
- Foru Lege proposamena, hedabide sozialetan baztertzailak diren edo pertsonen duintasuna urratzen duten publizitate-edukiak argitaratzearen aurkako neurriak sustatzeko. Osoko Bilkurak aintzat hartua (43. or.).
- Foru Lege proposamena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (43. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan produkzio integratuko marka bat sor dezan Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorerako. Osoko Bilkurak onetsia (44. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroan bete dadin Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa. Osoko Bilkurak onetsia (44. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren jokaera gaitzesten du, erakundeen erabilera sektarioa egiteagatik haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidearen erabilerari dagokionez, eta legedia osorik eta leialki bete dezan exijitzen dio. Osoko Bilkurak onetsia (45. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegiturei buruzko hitzarmena egin dezan Estatuarekin, zenbait obra bukatzeko epea ezartze aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia (46. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Parlamentuan aurkez dezan Nafarroa 2012 Planari dagokionez egiteko asmoa duen murrizketa. Osoko Bilkurak bazter utzia (46. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Transferentzia Batzordea premiatzen da zenbait eskumen eskualdatzeko eta bereganatzeko negoziazioak susta ditzan. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (46. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gripearean aurkako txertoen erosketa hitzar dezan Osasun eta Gizarte Politika Ministerioarekin, osasun publikoaren aurrekontuan aurrezte aldera. Mozioa erretiratzea (47. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2010eko apirilaren 13ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko irailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko 6.3 artikulua aldatzen du.

Lehenengo ataleko azken lerrokada kenduko da. "Nafarroako Gobernuak... Koordinatzeko Batzordeak adostasun txostena eman ondoren".

Zioak: Eskumen hori ez dagokio Nafarroako Foru Komunitateari.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo atala aldatzeko zuzenketa.

Proposameneko lehenengo atala aldatzen da. Hona testua:

«Bat. Honela idatzita agertuko da 6.3. artikulua:

“6.3 artikulua. Kidego bakoitzean, oro har, gehienez ere egonen dira:

A) Komisario nagusi bat ehun kideko.

B) Komisario bat berrogeita hamar kideko edo hogeita bost kidetik gorako hondarreko.

C) Inspektore bat hogeita hamar kideko edo hamabost kidetik gorako hondarreko.

D) Inspektoreorde bat hogeita hamar kideko edo hamar kidetik gorako hondarreko.

E) Kabo bat lau eta zazpi kideren bitarteko talde bakoitzeko edo horren hondarreko, administrazio bakoitzak finkatzen duen bezala.

Nafarroako Gobernuak, foru dekretu baten bidez, zifra horiek aldatzeko ahalmena izanen du, giza baliabideak hobeki antolatzeko. Tokiko poliziei dagokienez, kasuko toki entitateak eskatu ahaliko du aldaketa, betiere Nafarroako Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordeak adostasun txostena eman ondoren.

Dimentsio horiek Nafarroako polizia kidegoen antolamenduaren eta espezializazioaren garapenaren arabera eta aurrekontuan dagoen diruaren arabera zehaztuko dira, kasuan kasuko antolamendu erregelamenduan ezarritakoaren arabera.”»

Zioak: Nafarroako polizia kidegoen legediari buruzko araudiari eragiten dion edozein jarduketa egiteko lehen premisa da onartzea polizia-antolamenduen aniztasuna, eginkizunen nahiz antolamenduaren ikuspuntutik. Gogorarazi beharra dago manu honek berdin-berdin eragiten diela 1.000 kide dituzten polizia kidegoei eta dozena bat kidek osatutakoei, bai eta hurrengo urteetan sor litezkeen kidegoei ere. Lege testuak orokorra behar du izan, nahiz eta polizia kidegoen antolamendua eta espezializazio arloko beharrezkoak eta aurrekontuan dagoen diruari eta kidego horietako bakoitzaren baliabideei egokitu.

3. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren atala aldatzeko zuzenketa.

Proposameneko bigarren atala aldatzea proposatzen da, Legeko I. tituluari beste kapitulu bat, III.a, sartzeko. Hona testua:

«III. kapitulua. Nafarroako Polizien Kontseilua.

Artikulu berria. izaera eta eginkizunak.

1. Nafarroako Polizien Kontseilua sortzen da. Kide anitzeko organoa izanen da, Nafarroako segurtasun publikoaren sistemaren barruan egonen da, eta kontsulta egiteko eta aholku ematekoa izanen da.

Nafarroako Polizien Kontseiluak nahitaez hartuko du parte izaera orokorreko arauak taxutzeko prozeduretan, baina ez da loteslea izanen eta alderdi tekniko eta profesionaletara mugatuko da.

Nafarroako Polizien Kontseiluak aholkua behar duen entitateak eskatuta nahiz Kontseiluak berak proposatuta –halakoetan, ukitutako entitateak onartu egin beharko du hark aholku ematea– emanen du aholku.

2. Hauek dira Nafarroako Polizien Kontseiluren eginkizunak:

A) Nafarroako Polizia Kidegoetako entitate titularrei aholku ematea arlo tekniko eta polizialari eta polizia-zerbitzua hobetzeari dagokienez.

B) Aholku ematea polizia-zerbitzua kudeatzeko formula berriei buruz eta polizia-zerbitzuaren baldintza teknikoak eta antolamenduzkoak ezartzeari buruz.

C) Aholku ematea arlo polizialean Nafarroako segurtasun publikoaren sistema garatzeari buruz.

D) Aholku ematea polizia-prestakuntzaren arloan.

E) Nafarroako administrazio publikoei lankidetzara polizialari buruzko formulak proposatzea.

F) Txostena egin eta iritzia azaltze aldera ematen zaizkion arau-proiektuak ebaluatzea.

G) Lanbidearen estatutuari buruzko galderak bideratzea.

H) Nafarroako poliziek emandako zerbitzua hobetzen lagun dezakeen beste edozein.

I) Legeek eta xedapen orokorrek esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak.

3. Nafarroako Polizien Kontseiluaren txostena jasota, kontseilari eskudunak kontseiluaren funtzionamendu eta antolamendurako erregelamendua onetsiko du.

Artikulu berria. Kideak eta funtzionamendua.

1. Nafarroako Polizien Kontseiluak Nafarroako administrazio publikoen zortzi ordezkari izanen ditu, segurtasun arloko kontseilari eskudunak izendatuak –horien artean kontseilaria bera edo horren eskuordetza hartzen duen agintaria- eta Nafarroako polizia kidegoen beste zortzi ordezkari.

Nafarroako administrazio publikoen ordezkari horietarik lau Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioakoak izanen dira, eta gainontzeko lauak toki entitateetakoak, bat Iruñeko Udalekoa eta gainontzeko hiruak polizia kidegoa duten Nafarroako toki entitateetakoak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuta.

Nafarroako polizia kidegoen ordezkari horietarik lau Foruzaingokoak izanen dira, foruzainen buruak proposatuta, eta gainontzeko lauak tokiko polizietakoak, bat Iruñeko Udaltzaingokoa eta gainontzeko hiruak beste tokiko polizietakoak, Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordeak proposatuta.

2. Nafarroako Polizien Kontseiluko idazkari lana Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionario batek eginen du, zuzenbideko lizentziatu titulua izan beharko duenak. Hizpidea izanen du, baina botorik ez.

3. Kontseilua, gutxienez ere, urtean behin eta kontseilukideen heren batek, gutxienez ere, eskatzen dutenean bilduko da.»

Zioak: Nafarroako polizia kidegoen lankidetzaren eta koordinazioaren esparruan –horiek dira 2007ko lege-testuaren hartzaileak– eta abian den egoera sendotze aldera, onuragarria izan daiteke organo tekniko eta polizial bat sortzea, ikuspegi orokor batetik aholku eta laguntza ema diezaien arauaren aplikazio esparruan sartzen diren polizia kidego guztiei. Horrek ez du esan nahi gaur arte ez direnik ezarri Nafarroako polizia kidegoen arteko lankidetzara eta komunikazio modu orokorrak, ezpada harreman horiek ez zirela ofizial egiten organo jakin batean, zeinak espezializazio eta iraunkortasun handiagoa izan baitezake.

Orain arte, Nafarroako Foruzaingokoak Nafarroako Segurtasun Batzordearen bidez ezartzen zituen Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekiko koordinazio-harremanak; tokiko poliziek, berriz, Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordearen bidez, eta Foruzaingokoak, polizia kidegoak dituzten udalekikoa, Tokiko Segurtasun Batzordearen bidez. Proposatutako kontseiluak lehenengo aldiz jasoko luke

Forzaingoarentzako eta tokiko polizientzako jarduketa esparru bat, eta izaera zeharo teknikoa izanen luke.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege indardurako 17. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea eta 4. idatz-zatia gehitzea proposatzen da. Hona testuak:

«1. Bost mila bizilagun eskubidedun edo gehiago dituzten Nafarroako udalek beren tokiko poliziak sortuko dituzte.

4. Tokiko poliziaren kidegoa bakarria izanen da toki entitate bakoitzean, eta “tokiko polizia” deituko zaio, salbu eta ohituraz “udaltzaingoa” terminoa erabili den kasuetan; horrelakoetan, izan ere, ohiturazko izenari eutsi ahalko zaio.»

Zioak: Poliziaren zerbitzu publikoaren ezarpena ziurtatzea beren tamainarengatik halako zerbitzu bat izatea komenigarritzat jotzen den toki entitate guztietan. 4. idatz-zati berriarekin antolamenduaren eta gizartearen ikuspuntutik dauden izanei eutsi nahi zaie; halere, haien aitorenak eta banakatzekak ez du salbuespenik ekarriko haiek identifikatzen duten antolamenduaren araubide juridikoan.

5. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko 29.1 artikulua aldatzen du.

“Hautaprobak objektiboak izanen dira, eta izangaiak aurretiaz ezagutuko dituzte ebaluaziorako parametro teoriko eta praktikoak. Hautaprobetan sartuko dira, gutxienez ere, egoera fisikoari buruzko probak, eskatutako maila akademikoaren arabera ezagutza-probak eta proba psikoteknikoak. Ekipo berak eginen dizkie proba psikoteknikoak izangai guztiei, eta halako moduan eginen dira non diskrezioa ziurtatuko den eta, hortaz, ekipo ebaluatzaileak ez dituen ezagutuko gainontzeko proben emaitzak.”

Zioak: Nafarroako Parlamentuak onetsirik ditu bi mozio; mozio horien testua ez da oraindik arau mailara eraman, eta ez da haien emaitza aplikatu, baina kasu honetan uste dugu eskematikoki jaso beharra dagoela legearen testuan.

6. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29.2. artikulua. Egungo testua aldatu nahi da, 2. artikulua honela idatzirik gera dadin:

“Hautaprobaren artean, betiere, prestakuntza ikastaro bat egonen da, Nafarroako Segurtasun Eskolak emana. Ikastarorako dei bakarria egin ahalko da; hala bada, izangaiak behin bakarrik hautatuko dute, eta ikastaroa hasi aurretik.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionario bihurtzeko nahitaezko betebeharra izanen da ikastaro hori gainditzea.”

Zioak: Xedea da toki mailan sortutako arazo bati konponbidea ematea; izan ere, salbuespen hori ez dagoenez, gerta daiteke ikastaro bakar bat dagoenez, administrazio batean praktiketan dagoen norbaitek ikastaro hori gainditu eta beste lanpostu bat hautatzea, berriz ere lanpostua –gehienetan herrietako lanpostuak– hutsik utzita.

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren atala aldatzeko zuzenketa.

Legeko 30.1 artikuluko b) letran jasotzen den adin-muga aldatzea proposatzen da. Hona testua:

Laugarrena. 30.1 b) artikulua honela idatzita agertuko da:

“30.1.b) artikulua. Eskakizunak.

1. Nafarroako polizia kidegoetako lanpostuetan edo funtzionario gisa sartzeko hautaprobetan onartua izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

b) Adinez nagusia izatea eta 30 urte baino gehiagoko adinik ez izatea.”

Zioak: Xedea da Nafarroako polizia kidegoetan sartzeko gehienezko adina egokitzea beste polizia batzuetan sartzeko ezartzen den mugara, Estatu-ko Administrazio-ko nahiz autonomia erkidegoetako beste polizietan sartzeko ezartzen den adin-mugara alegia, hartara polizien prestasuna eta lan bizitza hobetuko baitira. Polizian sartzeko gehienezko adina jaistea lege honetako beste sustapen-aukera batzuekin lotuta dago. Hor dira, esaterako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Orokorreko lekualdatze lehiaketetan parte hartzeko aukera edo bigarren jarduerako administrazio-ego-

era. Gaur eguneko adinari eusteak berekin ekarriko luke Nafarroako polizia kidegoen zahartzea.

Hona beste polizia kidego batzuetako gehieneko adinak:

Kidegoa	Gutxieneko adina	Gehieneko adina
Madrilgo Udaltzaingoa	21	30
Ertzaintza	18	35
Polizia Nazionala	18	30
Guardia Zibila	18	30
Mossos d'Esquadra	18	35

Kontuan hartu behar da, halere, polizia kidegoetan sartzeko gehieneko adina berehala jaistek berekin ekar dezakeela gehiegi murriztea funtzio publiko polizialean sartzeari; hori dela eta, zuzenketa honekin batera dator xedapen iragankor bat gehitzeko beste zuzenketa bat.

8. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legeko 30.1.c) artikulua aldatzeko zuzenketa.

Ondokoa ezabatuko da 30.1.c) artikulutik: "Hala ere, polizia gisa sartzeko nahiko izanen da (...) ez eta Administrazioaren beste esparru batzuetako maila horretako lanpostuak betetzeko ere."

Zioak: Poliziak atxikitzen zaizkion maila, C maila, aldatu zenez geroztik, maila horretako funtzionario guztiei eskatzen zaien titulazioa eskatu behar da, inolako salbuespenik gabe, beste garai batean hori justifikatuta baldin bazegoen ere.

9. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legeko 31.1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Nafarroako Polizia Kidegoetako lanpostuak eskuratzeko eskatuko den titulazioa 42. artikulua ezarritako mailei dagokiena da.

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat (30.1.c artikulua), ez du zentzurik salbuespenak egoteak, eta 42. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar da.

10. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legeko 31.2 artikulua aldatzeko zuzenketa.

"2. Nafarroako polizia kidegoetako plantillako langileek, barne igoerarako, eskatutako tituluaren ordezkari kategorian emandako urteak aurkezten ahalko dituzte, foru lege honetan eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren ezarritakoaren arabera."

Zioak: Nafarroako funtzionario guztiek berdinak izan behar dute, titulazioei eta sarbideari buruzko baldintzei begira; beraz, balizko hutsuneak ekidite aldera, kasu honetan bidezkoa da Estatutua aipatzea.

11. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bosgarren atala kentzeko zuzenketa.

Bosgarren atala kentzea proposatzen da; beraz, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege indardunean dagoen bezala geldituko da 35. artikulua.

Zioak: Deialdietan polizia-inspektore izatera igotzeko bi txanda sortzeko asmoak –polizia kidego bereko kideentzat soilik bata eta Nafarroako polizia kidego guztietako kideentzat bestea– urratu egiten du aukera berdintasunaren printzipioa, aukera bikoitza ematen dielako polizia kidego bereko kideei. Halaber, Nafarroako polizia kidegoen arteko mugikortasuna zailagoa izanen litzateke. Gure ustez, egungo testua egokiagoa da.

12. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Seigarren atala kentzeko zuzenketa.

Seigarren atala kentzea proposatzen da; beraz, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege indardunean dagoen bezala geldituko da 36. artikulua.

Zioak: Alde batetik, txandetako erreserba-ehunekoetan egindako akats bat zuzendu nahi da; izan ere, igoera txandarako ehuneko 80 gordetzen baldin bada eta gainontzeko ehunekoak bere horretan uzten badira, batura 100etik gorakoa izanen da, eta hori egiterik ez dago noski. Deialdietan

polizia-komisario izatera igotzeko bi txanda sortzeko asmoak –polizia kidego bereko kideentzat soilik bata eta Nafarroako polizia kidego guztietako kideentzat bestea– urratu egiten du aukera berdintasunaren printzipioa, aukera bikoitza ematen dielako polizia kidego bereko kideei. Halaber, Nafarroako polizia kidegoen arteko mugikortasuna zailagoa izanen litzateke. Gure ustez, egungo testua egokiagoa da.

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zazpigarren atala aldatzeko zuzenketa.

Proposameneko zazpigarren atala aldatzea proposatzen dugu, 39. artikuluko 2. eta 3. artikuluen jatorrizko testuari eutsita. 5. idatz-zatia gehituko da eta 6. idatz-zatiari dagokion zenbakia jarriko zaio. Honela geratuko da, hain zuzen:

Zazpi. Honela idatzita agertuko da 39. artikulua:

“39 artikulua. Lanpostuak eskuratzeko prozedura.

5. Lanpostuetara sartzeko hautaprobak objektiboak izanen dira, teorikoak edo/eta praktikoak, eta izangaiek aurretiaz ezagutuko dituzte ebaluaziorako parametroak.

6. Aurreko idatz-zatietan jasotako xedapenak erregelamenduz garatuko dira Nafarroako polizia kidegoetako lanpostu bakoitzerako”.

Zioak: Proposatzen dugu bateratzea hautaprobena izaera objektiboari buruzko aipamena, bai eta izangaiek ebaluaziorako parametro objektiboak ezagutzeari buruzkoa aipamena ere, errepikapenak saihesteko eta teknika normatibo hobea lortzeko. Aldi berean, amaierako lerrokadan, oraingo 6.ean, kokatu nahi dugu erregelamendura jotzeari buruzko aipamena.

14. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

41. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legeko 41. artikuluko 1. idatz-zatian bigarren lerrokada bat gehitzea, honako testuarekin:

“41. artikulua. – Praktiketako funtzionarioak.

1. Nafarroako polizia kidegoetako polizia, inspektore edo komisario lanpostuetan sartzeko Nafarroako Segurtasun Eskolak ematen duen prestakuntza ikastaroa egitera onartzen diren eta jada Nafarroako polizia kidegoetako bateko funtzionarioak ez diren izangaiek, ikastaroa egin bitartean eta, gaindituz gero, Administrazioak behin betiko lanpostuaren jabetza hartzeko finkatzen duen egunera arte, praktiketako funtzionarioak izanen dira. Erregelamendu bidez egoera horri dagozkion baldintza, eskubide eta betebeharrak arautuko dira.

Horretarako, aldi berean administrazio publiko batek baino gehiagok egindako sarrera-probetara aurkeztu eta haiek gainditu dituzten izangaiek, prestakuntzako oinarriko ikastaro bakarrean daudenek, ikastaroa gaindituta sartzera erabaki duten kidego edo administrazioa hautatu beharko dute.”

Zioak: Poliziaren funtzio publikoan sartzearen eta deialdiak eta ahaleginak optimiatzearen arloan konponbideak ematea.

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

41.1. artikulua. “egunera arte,” hitzen ondoren, “prestakuntza ikastaroaren hasieran hautatu duen administrazioko” hitzak gehitzea.

Zioak: Aurrekoarekin bat, argi utzi behar da zein administraziok ordaintzen dituen praktikak eta, horrenbestez, izangaiek zein administraziotan bete nahi dituzten lanpostu hutsak.

16. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zortzigarren atala aldatzeko zuzenketa.

Plan zuzendaria terminoaren ordeztu prestakuntza plana terminoa jartzea proposatzen dugu. Hona testua nola geratuko den:

Zortzi. Honela idatzita agertuko da 43. artikulua:

“43 artikulua. Nafarroako polizien prestakuntza

1. Nafarroako polizia kidegoetako kideen prestakuntzak eta hobekuntzak Nafarroako poliziei buruzko prestakuntza planean ezarritako aurreikuspena beteko dute, eta 4. artikuluan adierazita-

ko printzipioei egokituko zaizkie. Halaber, honako irizpideak bete beharko dute:

a) Profesionala eta etengabea izanen da.

b) Administrazio publikoen menpeko ikastetxe-etan egiten diren ikasketak Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak baliozkotu ahalko ditu. Ministerioak, horretarako, kontuan hartuko ditu ikasketa horietako bakoitzera sartzeko eskatutako titulazioak eta ikasketen iraupena.

c) Aipatutako irakaskuntzak eta ikastaroak emateko, erakundeen arteko lankidetzak sustatuko da unibertsitatearekin, botere judizialarekin, Ministerio Fiskalarekin, indar armatuekin eta aipatutako ikastetxei berariaz interesatzen zaizkien bestelako erakunde, zentro edo establezimenduekin.

2. Nagusiki, Nafarroako Segurtasun Eskolak prestatuko ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpe baitago, Nafarroako polizia kidegoetako kideak, udal agenteak eta udaltzain laguntzaileak, eta, era berean, horiek hautatzeko prozesuetan ere parte hartuko du. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko c) letran aipatzen diren gainerako zentro edo establezimenduek ere prestatutako hori eman ahalko dute eta hautapen-prozesuetan parte hartu ahalko dute.

3. Erregelamenduz ezarriko da zein izanen den aurreko idatz-zatian aipatutako langileen prestakuntza-araubidea, eta, bereziki, horiek izanen dituzten eskubideak eta betebeharrak; arau horiek, betiere, oinarri izanen dituzte objektibotasunaren printzipioa, gardentasunarena, aukera berdintasunarena, espezialitatearena eta publikotasunarena.

4. Nafarroako Segurtasun Eskolaren eginkizunen artean eginkizun berberak edo antzekoak dituzten erakunde publikoek emandako ikastaro eta diplomak osorik edo partez baliozkotzea izanen da, baita eskolak berak lehenago emandakoak ere, betiere edukiak berdinak badira. Horrelakotetan, behar den puntuazioa esleituko zaio tituluari. Halaber, artikulu honetako 1. idatz-zatiko b) letran aipatzen diren baliozkotze-eskabideak bideratzeaz arduratuko da.”

Zioak: Planari prestakuntza plana deitzea hobeki ezkontzen da edukiarekin.

17. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zortzigarren atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko 43. artikulua aldatzen du.

43.1.b) artikulua kentzea.

Zioak: Proposatutako testuan Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak ez diren gaiak azaltzen dira.

18. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zortzigarren atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko 43.3 artikulua aldatzen du. (2. idatz-zati bi daude, eta hori zuzendu beharko da).

“3. Nafarroako Segurtasun Eskolaren eginkizuna da, besteak beste, kontratazio eta hautapen organoentzako aginduzko txostena egitea deialdi bakoitzean, izangaiak eginiko ikastaroak eta gisako eginkizunak dituzten beste erakunde publiko batzuek izangai horiei emandako diplomak hein batean edo osorik baliozkotzea. Horretarako, aintzat hartuko ditu edukien baliokidetasuna, lortutako emaitzak eta irakatsitako arloen indarraldia.”

Zioak: Eskolak ikasketak ematen ditu eta txostenak egiten ditu, baina azken erabakia ebaluazioaz arduratzen diren organoei dagokie.

19. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9.2 atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko 44 artikulua aldatzen du.

“2. Nafarroako polizia kidegoetako kideek Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioentzako igoera txandako prozeduretan parte hartzen ahalko dute, baina egiazki lau zerbitzu-urte ematen dituztenetik aurrera.”

Zioak: Erraztasun handiagoa eman behar da sustapenari begira.

20. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9.3 atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko 44. artikulua aldatzen du.

“3. Nafarroako polizia kidegoetako kideek partaide diren Administrazioko merezimenduen lehia-kerketan eta lanpostuen leku-aldatzeetan parte hartu ahalko dute, kidegoaren barruko zerbitzuan

bost urte eman badituzte edo 45 urte baino gehiago badituzte.”

Zioak: Erraztasun handiagoa eman behar da sustapenari begira.

21. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bederatzigarren atala aldatzeko zuzenketa.

44.3 artikulua aldatzea proposatzen da; hartara, kidegoaren barruko zerbitzuan 10 urte eman behar izanaren ordez 20 beharko dira, eta 45 urte baino gehiago izan beharraren ordez 55 beharko dira. Halatan, testua honela geldituko da:

«Bederatzi. Honela idatzita agertuko da 44. artikulua:

“44. artikulua. Sustapena.

3. Nafarroako polizia kidegoetako kideek partaide diren Administrazioako merezimenduen lehiaketetan eta lanpostuen leku-aldatzeetan parte hartu ahaliko dute, kidegoaren barruko zerbitzuan 20 urte eman badituzte edo 50 urte baino gehiago badituzte, eta polizia izateari utziko diote lanpostu berriaren jabetza hartzen duten unean berean.”»

Zioak: Polizia-baliabideak ahalik eta gehien baliatu ahal izatea bilatzen da, sartzeko eta prestatzeko kostuak handiak direlako eta ez dagoelako langile horien ordezkapenak egiteko aukerarik.

22. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamargarren atala aldatzeko zuzenketa.

45. artikuluko 1., 2., 3. eta 4. idatz-zatiak aldatzen dira, beste segida bat emanez artikuluari eta i) letra berria gehituz azken idatz-zatian. Hona testua:

Hamar. Honela idatzita agertuko da 45. artikulua:

“45. artikulua. Destinoen banaketa.

1. Polizia kidegoen barruko destinoak betetzeko, merezimendu eta gaitasun printzipioak hartuko dira kontuan. Honakoak izanen dira sartzeko modalitateak: lehiaketa, zeina sistema arrunta baita, berariazko lehiaketa eta izendapen askea.

2. Berariazko lehiaketa erabili ahaliko da erantzukizun edo prestakuntza bereziak eskatzen diren

lanpostuak betetzeko. Sistema horren bitartez sartzeko ezartzen diren hautaprobek objektiboak izan beharko dute, eta izangaiek, aurretik ebaluatuko diren parametroak ezagutu beharko dituzte.

3. Sistema horren bidez bete daitezkeen izendapen askeko lanpostuak eta zuzendaritza lanpostuak erregelamendu bidez ezarriko dira.

4. Izendapen askeko sistemaren bitartez zuzendaritza lanpostuak betetzeko izendatutako funtzionarioak, izendatu zituen organoak libreki kendu ahaliko ditu dauden lanpostuetatik. Hala egin ez gero, zuzendaritza-karguari dagozkion osagarriak jasotzetik gelditu eta berehala jatorrian atxikita zeuden lanpostura itzuli beharko dute.

5. Plantilla organikoetan, polizia kidegoetako lanpostuak aipatuko dira, eta haietan ezarriko dira lanpostuak, behar bezala sailkaturik. Soilik honakoak aipatuko dira berariaz:

A) Lanpostu bakoitza zein mailari atxikita dagoen.

B) Lanpostuaren zenbakia eta izena.

C) Zein unitate organikoren menpean dagoen.

D) Zein egoitzatan edo herritan dagoen.

E) Zein enplegu edo kategoriatakoentzat erreserbatuta dagoen.

F) Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipaturiko lanpostuak betetzeko sistema.

G) Lansari osagarriak.

H) Bigarren jarduerako lanpostuak.

I) Sartzeko moduak eta bertan jarraitzeko baldintzak.”

Zioak: Lehen idatz-zatia zuzendu beharra dago, destinoak betetze aldera merezimendu eta gaitasun irizpideei lehentasuna emanez; 3. idatz-zatia, berriz, zehaztu egin behar da; 4.ean sartzeko eta bertan jarraitzeko baldintzak gehitzen dira –5. idatz-zati berrian jasotzen da hori, i) letra berriaren bidez–.

Foru lege proposamenean izendapen askearen sistemaren bidez lor daitezkeen lanpostuen eta zuzendaritza lanpostuen artean dagoen nahasketak argitu nahi da orobat. Izendapen askea lanpostuan sartzeko modu bat da, lehiaketarekin eta lehiaketa berariazkoarekin batera, eta ez du zerikusirik zuzendaritza lanpostuak betetzearekin. Horietan sartze eta horietatik kentzeko modua ezberdina izan behar da nahitaez.

23. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hamargarren atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko 45.3 artikulua aldatzen du.

“3. Izendapen politiko askeko zuzendaritza postuak izanen dira Nafarroako Poliziako zuzendari nagusia eta haren taldea, gehienez ere hiru pertsonak osatua. Zuzendariaren taldeko pertsonak funtzionario izan beharko dute.

Izendapen askeko postu guztiak noiznahi kendu ahal izanen dira kargutik, eta, halakoetan, zuzendaritzako kide izateari dagozkion osagarriak jasotzeari utziko diote, eta jatorriko lanpostura itzuli beharko dute.”

Zioak: Karguak libreki izendatzeko ahalmenaren irakurketa murriztailea egin behar da.

24. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hamaikagarren atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko 47. artikulua aldatzen du.

“47.1 artikulua aldatzen da.

1. Bigarren jardueraren egoera administratiboa destinoduna ala kasuko administrazioaren eskura egotearena da.

Kasuko administrazioaren eskura egonda bigarren jardueraren egoerara pasatzen diren funtzionarioek (...) harik eta erretiroko adinera iritsi arte.”

Zioak: Kontzeptu-aldaketa baino gehiago, zuzenketa terminologikoa da.

25. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hamaikagarren atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko 47.5 artikulua aldatzen du.

“5. Bigarren jarduerako egoeran dauden Nafarroako polizia kidegoetako kideek, beren kategoriari dagozkion oinarrizko ordainsariak eta aitorturik dituzten ordainsari pertsonalak jasoko dituzte, egiazki betetzen duten lanpostuak dituen osagarriez gainera, bai eta osagarri pertsonal bat ere; horren zenbatekoa lehen jardueran jasoko zutenaren

rekiko aldearen berdina izanen da, salbu eta arrisku-plusak, baldin eta halakorik badago, eta, jakina, aparteko orduak edo ardurak.”

(Kendu eginen dira hurrengo bi lerrokadak).

Zioak: Bi arazo nagusi daude bigarren jardueraren araubidea modu sistematikoan ez abiarazteko; alde batetik, Administrazioak definiziorik eta proposamenik ez egitea, eta beste alde batetik, bigarren jardueran aritzen direnek murriztapen ekonomiko handia pairatzen dutela; halako murrizketarik ez egotea ezarri beharra dago, salbu eta berariazko dedikazioari, hau da, arriskuari eta dedikazioari dagokienez.

26. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hamaikagarren atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko 47.7 artikulua aldatzen du.

“7. Bigarren jardueran dagoen funtzionarioak ezin izanen du kategoriaz igotzeko prozesuetan parte hartu, baldin eta bigarren jarduera hori artikuluko honetako 2. idatz-zatiko a) eta b) letretakoa bada, baina bai hartu ahal du parte, baldin eta bigarren jarduera hori artikuluko honetako c) letrakoa bada.”

Zioak: Jakina, bigarren jardueran aritzen den administrazio orokorreko funtzionario batek sustapenerako ateak zabalik izan behar ditu; izan ere, bigarren jarduera horretan sartzeko arrazoia fisikoa izan daiteke, erraza, adibidez hanka baten anputazioa.

27. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hamaikagarren atala aldatzeko zuzenketa.

Hamaikagarren ataleko 1. eta 2.c) aldatzea eta gainontzekoak kentzea proposatzen da. Hona testua:

“1. Hauxe da bigarren jardueraren helburua: Nafarroako polizia kidegoan jardunean dauden langileen eraginkortasuna bermatzea eta lanbide karrera denboraren joanean edo gaitasun fisikoak edo psikikoak ustekabeen murriztean gertatzen diren aldaketetara egokitzea. Bigarren jardueraren egoera administratiboa destinoduna izanen da.

2.c) Administrazio bereko beste lanpostu batean, prestakuntzarekin, segurtasun arloko nahiz

beste arlo batzuetako politikekin, polizia administratiboko jarduerekin (adierarik zabalenean) zerikusi zuzena duena, administrazio horren eskumenen esparruan, konparazio batera zehapen espedienteen tramitazioetan laguntzea, lan administratibo edo exekutiboak, zaintza, kontrola, ikuskapenak eta bestelakoak, betiere langilearen mailarentzat eta jakintzarentzat egokiak badira eta ahalegin fisiko, arrisku edo zailtasun gutxiagokoak badira.”

Zioak: Gizarteari ezin zaio aurkeztu, hain gutxi bizi dugun ekonomia, finantza eta langabezia krisi egoera honetan, Nafarroako polizietan destinorik gabeko bigarren jarduera abiaraziko dela, figura horrek ekarriko lukeelako funtzionarioak, adin jakin batetik aurrera eta jardunean egonda, etxera bidaltzea soldata kobratuta.

28. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamabigarren eta hamairugarren atalak kentzeko zuzenketa. Horien bidez, 8/2007 Foru Legeko 49. eta 50. artikulua aldatzen dira.

Zioak: Nafarroako entitate publikoetako eta Administrazioako Polizia Kidegoen ordainsariek eta araubide orokorrak beste funtzionario batzuen modukoa izan behar dute.

29. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamabigarren atala aldatzeko zuzenketa.

Hamabigarren ataleko c), e) eta g) letrak aldatzea, k) letra gehitzea eta i) letra kentzea proposatzen da lege-testuko 49. artikuluan. Hona testua:

“c) Beren interesak defendatze aldera, sindikatuetan afiliatzeko eskubidea izanen dute eta, orobat, sindikatuetatik atera eta beste erakunde batzuk sortzeko, betiere askatasun sindikalari buruzko legediak ezarritako baldintzak betez gero, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoentzat ezarritako moduan.”

“e) Lanaldia eta oporrak eta baimenak hartzeko berariazko modua erregelamendu bidez xedatuko dira, polizia-eginkizunaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta. Hartara, urte naturala hasi aurretik lan-egutegiak ezarri ahalko dira; haien arabera, lanaldia eguneko edo gaueko txandatan izan ahalko da, eta guardia lokalizatuak nahiz bertan egoteak ezarri ahalko dira, bai eta jai-egunetan lan

egin behar izatea ere. Betiere, kontuan hartuta polizia-eginkizunaren ezaugarriak bereziak direla eta oinarritzko zerbitzu publiko hori berehala eman beharra eska daitekeela eta, zerbitzuaren izaerari erreparatuta, ez dagoela langileak aldi baterako ordezkapenak egiteko edo zerbitzua indartzeko sistemak baliatzerik, lan-egutegi horiek muga izanen dute segurtasun publikoa, larrialdiak artatzea eta babes zibila, eta edozein unetan aldatu ahalko dira, polizia-zerbitzua ematen dela ziurtatzeko.”

“g) Beren eginkizunetan egindakoengatik erantzukizuna eskatzen zaie auzi guztietan, atxikita duen administrazio publikoko profesionalak laguntza emateko, ordezkatzeko eta aldezteko eskubidea izanen dute, Administrazioaren kontura, baldin eta Polizia Kidegoaren Buruzagitzak, hasiera batean, foru lege honetako 4. artikuluan jasotzen diren jardunaren oinarritzko printzipioen arabera direla uste badu.”

“k) Eskubidea izanen dute haiek hautatutako legelari batek lagun diezaien, haien kargura betiere, haiek ukitzen dituzten diziplina-espediente edo aurretiazko informazio guztiak garatzen direnean.”

Zioak: Testua hobetzen da eta poliziako langileen eskubideak eta betebeharrak harmonizatzen dira, kontuan hartu behar baita langile-araubide berekia dutela eta polizia-eginkizuna berezia dela eta ematen duten zerbitzuak berehalako erantzuna behar duela eta aitzakiarik gabekoa dela.

Espresuki jasotzen da legelarien laguntza aurretiazko informazioaren fasean nahiz diziplina-espedienteen kasuan, aipamen erreplikakorrak ez egitearren 65. artikuluan eta hurrengoetan, hogeita hirugarren atalean zuzenketa egin baitzaie.

30. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamairugarren atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aldaketak ez du edukirik, ez baitu ezertan aldatzen foru legearen jatorritzko testua.

31. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamalauugarren atala aldatzeko zuzenketa.

Nafarroako Polizia Kidegoen martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 52. artikulua ondoko testua izanen du:

“1. Destinoko herria ez den beste batean bizitzeak ez du poliziako funtzionarioa salbuesten lan lekura garaiz iristeaz eta lanaldia nahiz karguaren berezko funtzioak zorrotz betetzeaz, eta ez du ekarriko ordainik ematea lan lekurako joan-eto-riengatik.

2. Behar bezala justifikaturiko kasu batzuetan, poliziaren alorreko eskumena duen administrazio-aginteak zilegi izanen dute poliziako funtzionarioei modu arrazoituan eskatzea destinoko herrian bizitzea, hala behar izanez gero lanpostuaren eginkizunengatik edo lanposturako eskaturiko dedikazioarengatik.”

Zioak: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Orokorreko gainontzeko funtzionarioei emandako tratua bera ematea.

32. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamalau garren atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko 52. artikulua aldatzen du.

“Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek ez dute bizi behar izanen lan egiten duten herrian, baldin eta bere bizitokia ez den lanera garaiz iristeko oztopo, zein eguraldi egiten duen ere. Salbuespen dira zerbitzu-arrazoiengatik herri berean bizitzeko betebeharra ezartzen duten kasuak.”

Zioak: Konstituzioak bizitokia aukeratzeari begira ezartzen duen eskubideak ezin du ahanzarazi polizia kidegoek bere presentzia eta jardura ziurtatu behar dutela salbuespen egoeratan; esate baterako, hondamendia gertatzen denetan, edo besterik gabe eguraldi txarra egiten duenean; hortaz, bizitokia aukeratzeko askatasuna eta lanpostura heltzeko bermea uztartu beharra dago.

33. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamabosgarren atala kentzeko zuzenketa; artikulua horrek 8/2007 Foru Legeko 54. artikulua aldatzen du.

Zioak: Polizia kidegoak kidego zibilak dira, eta gainontzeko funtzionarioen araubide bera izan behar dute haien merezimendu ezohikoei eta berezkoa duten eginkizunetik harantzago doazenei dagokienez.

34. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamaseigarren atala aldatzeko zuzenketa.

Proposameneko hamaseigarren atalaren testua aldatzea proposatzen da, 56. artikulua 2. idatz-zatiari dagokiona. Honako testua izanen du:

«Hamasei. Honela idatzita agertuko da 56. artikulua:

“56. artikulua. Aplikatu beharreko araubidea.

1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen ordezkari, negoziazio kolektiboari eta lan baldintzetan finkatzeko eztabaidetan parte hartzari dagokienez, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarrita dagoenari segituko zaio.

2. Foruzaingoan negoziatorako mahai sektorial bat sortuko da, zeinak jardunen baitu Nafarroako administrazio publikoetako langileen estatutuan organo horietarako aurreikusitakoaren arabera.”»

Zioak: Mahai sektorialeak ez dute ahalmenik beren jardun-esparruari dagozkion gai guztietan hitzarmenak lortzeko. Lansariei buruzko aferak Funtzio Publikoko mahai orokorrari dagozkio, eta, ondorioz, mahai sektorialeak ez dagozkie eginkizun hori. Halaxe dago ezarrita Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutua. Gainera, hori izan azken urteotan sindikatuek eta mahai orokorrak lortutako hitzarmenetan erabilitako irizpidea, eta hala jaso da aipatu hitzarmenetan. Eginkizunen banaketa hori hausteak disfuntzio bat sortzea dakar, zeina Administrazioko beste alor batzuetara zabalduko bailitzateke, eta horrek ondorio desegokiak ekarriko lituzke.

35. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamazazpigarren atala aldatzeko zuzenketa.

Proposameneko hamazazpigarren atalaren testua aldatzea proposatzen da, 58. artikulua 1. idatz-zatiari dagokiona. Honako testua izanen du:

«Hamazazpi. Honela idatzita agertuko da 58.1. artikulua:

“58. artikulua. Diziplina hutsegiteen sailkapena eta preskripzioa.

1. Diziplina hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Arau-hauste arinek hiru hilabeteren buruan preskribatuko dute, larriek bi urteren buruan eta oso larriek hiru urteren buruan.”»

Zioak: Preskripzio-epeak bat etortzea polizia-aren arloko beste araubide batzuetan ezarritakoe-kin.

36. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hemezortzigarrenetik hogeita hirugarren atale-
ra bitartekoak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arestian adierazi dugun legez, Foru Komunitateko Administrazioako polizia kidegoak kidego zibilak dira, eta haiek zehatzeko araubidea gainontzeko funtzionarioena izan behar da.

Beste lege batzuei eginiko zuzenketetan ere adierazi dugu premiazkoa dela funtzio publikoko estatutua eguneratzea, eta Administrazioako kide-
goetako zehapen araubideak parekatu eta batera-
tu beharra dago.

Nafarroako polizia kidegoen zehapen araubi-
dea berezia izateak badu arrisku bat: funtzionario
izaerari buruzko irizpideen gainetik baliatzea poli-
zia izaerakoak.

37. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hemezortzigarren atala ordezteko zuzenketa.

Proposameneko hemezortzigarren ataleko tes-
tuaren ordeze beste testu bat jartzea proposatzen
dugu. Hona testua:

«Hemezortzi. Honela idatzita agertuko da 59.
artikulua:

“59. artikulua. Hutsegite arinak.

Hauek dira hutsegite arinak:

a) Puntualtasuneko hutsegiteak, behin eta
berriz gertatutakoak aurreko hogeita hamar egu-
netan, justifikatutako arrazoirik gabe.

b) Hogeita hamar eguneko epean behin ez joa-
tea lanera bidezko arrazoirik gabe, hutsegite larria-
gotzat jotzen ez bada.

c) Hiru hilabeteko epean behin ez egitea lanal-
di osoa, bidezko arrazoirik gabe, hutsegite larria-
gotzat jotzen ez bada.

d) Herritarrekiko, agintariekiko, nagusiekiko eta
lankide edo menpekoekiko harremanetan desego-
ki jotzea.

e) Zerbitzuko lokalak, instalazioak, ibilgailuak,
materialak, dokumentazioa eta gainerako elemen-
tuak gaizki erabiltzea edo axolagabekeriaz zain-
tzea, eta arlo horretan xedaturiko arauak ez betet-
zea, hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

f) Edozein eskaera edo erreklamazio erregela-
menduzko bidetik aparte egitea, premiazko kasue-
tan ez bada, bai eta horiek ez izapidetzea ere.

g) Lanean dihardutela edari alkoholodunak eda-
tea.

h) Lanerako baliabide informatiko eta materia-
lak desegoki erabiltzea eta erabilerako ezarritako
jarraibideak ez betetzea, hala nola sistema infor-
matikoetan sartzeko pasa-hitzak gaizki erabiltzea.

i) Norberaren garbiketari edo itxurari dagokie-
nez, utzikeriaz jotzea eta, orobat, uniformeari
eta agurrari buruzko arauak ez betetzea.

j) Tresna edo baliabide ofizialak norberaren
onerako erabiltzea edo horrelako erabilera bai-
mentzea, edo horretarako bidea hirugarrenei
erraztea, bidezko arrazoirik gabe eta nagusiari
jakinarazi gabe.

k) Lanbide kredentzialak bidezko arrazoirik
gabe erakustea.

l) Lanbide kredentzialak, arauzko arma edota
polizia-eginkizunetarako erabiltzen den beste
baliabideren bat galtzea edo lapurtua izatea, arre-
ta faltagatik.

m) Betebeharretan edo jasotako aginduetan
berandu iristea edo utzikeriaz jotzea.

n) Polizia-bulegoetan egiten den edozein jolas,
zerbitzua ematea oztopatzen badu edo poliziaren
irudiari kalte egiten badio.

o) Intsignia, domina edo bestelako bereizga-
rriak eramatea, horretarako baimenik gabe, hutse-
gite larriagotzat jotzen ez bada.

p) Doloz egindako faltagatik epai irmoaren
bidez kondenatua izatea, eginiko arau-hauste
penalak kalte egiten badie Administrazioari edo
herritarrei.

q) Foru lege honen 4. artikuluan ezarritako
printzipioen ondoriozko eginbeharrak ez betetzea,
betiere hutsegitea larria edo oso larria ez bada,
eta, orobat, polizia lanari dagozkion eginbehar eta
betebeharretan berandu iristea edo zabarkeriaz
edo utzikeriaz jotzea, hutsegitea larriagotzat jot-
zen ez bada.”»

Zioak: Proposaturiko testuak, egun indarrean dagoenetik abiatzen bada ere, Polizia Nazionaleko Kidegoaren diziplina araubidean jasotako tipifikazioak ere biltzen ditu. Testu hori hobeto egokitzen zaio Foruzaingoaren polizia integral eta erreferentziazkoaren ereduari; izan ere, Foruzaingoaren eta estatuko edo beste autonomia erkidego batzuetako polizia kidegoen diziplina araubidea homogeneizatzen ditu.

38. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hemeretzigarren atala ordeztuko zuzenketa.

Proposameneko hemeretzigarren ataleko testuaren ordezkari beste testu bat jartzea proposatzen dugu. Hona testua:

«Hemeretzi. Honela idatzita agertuko da 60. artikulua:

“60. artikulua. Hutsegite larriak.

Hauek dira hutsegite larriak:

a) Puntualtasuneko hirugarren hutsegitea, hiru hilabeteko epean, bidezko arrazoirik gabe, aurreko biengatik hutsegite arinagatik zehapena ezarri denean eta hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

b) Lanera hiru aldiz ez joatea, hiru hilabeteko epean, bidezko arrazoirik gabe, aurreko biengatik hutsegite arinagatik zehapena ezarri denean eta hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

c) Hiru hilabeteko epean, gehienez ere lau aldiz ez egitea lanaldi osoa, bidezko arrazoirik gabe, hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

d) Herritarrekiko, agintariekiko, nagusiekiko, lankideekiko edo menpekoekiko errespetu falta, beren eginkizunetan dihardutela, edota Foruzaingoaren izen ona nabarmen galaraztea.

e) Zerbitzuetako bulegoetan, instalazioetan, ibilgailuetan, materialean, agirietan eta gainerako elementuetan kalte larriak eragitea, edota horiek galdu edo lapurtuak izan daitezen ahalbidetzea.

Polizia eginkizunek berezkoak dituzten baliabideak zerbitzuarekin zerikusirik ez duten erabilertarako baliatzea edota baliatzeko baimena ematea, horretarako arrazoirik ez badago.

f) Zerbitzuaren berezko arloetan nagusiek idatziz edo ahoz emandako aginduak ez betetzea, ordenamendu juridikoaren arau-hauste nabarmena ez badira.

g) Legeek abstenitzeko ezarritako arrazoiren bat gertatzen denean, prozedura administratiboren batean parte hartzea.

h) Lanean dihardutela iskanbilak edo liskarrak sortu edo horrelakoetan parte hartzea.

i) Beren kargua dela-eta ezagutzen dituzten gaietan lanbideko sekretuaren betebeharra ez betetzea edo informazioa isilpean ez edukitzea, polizia lanari edo hirugarrenei kalterik eragiten ez zaienean.

j) Kidegotik kanpoko pertsoneri edo komunikabideei eginiko adierazpen publikoak, zerbitzu-ematea modu larrian kaltetu edo zerbitzuaren irudi ona kaltetzen dutenak.

k) Beren eskurantz ez gehiegikeriaz baliatzea, herritarren kaltetan, egitate hori hutsegite larriagotzat hartzen ez bada.

l) Zerbitzuari buruzko txostenak egitean edo erabakiak hartzean, argiro gezurrezkoak izan gabe ere, egiatik aldentzea, termino anbiguoak, nahasgarriak edo tendentziosoak erabilia, edo zehaztasun faltagatik egia desitxuratzea, horrek Administrazioari edo herritarrei kalte eragiten badie, ez bada delitutzat edo hutsegite oso larritzat jotzen.

m) Nagusiei ez jakinaraztea haiek jakin behar duten edo lehenbailehen erabaki behar duten edozein kontu.

n) Arauzko armak zerbitzuko jardunean edo zerbitzutik kanpo erabiltzeko arauak hautsiz erabiltzea, gauzei edo pertsoneri kalte egin gabe.

ñ) Doloz egindako delituagatik epai irmoaren bidez kondenatua izatea, hutsegite oso larritzat ez bada jotzen, edota doloz egindako faltagatik epai irmoaren bidez kondenatua izatea, arau-hauste penalak zerbitzuarekin loturarik badu.

o) Zuhurtziagabekeriak eragindako delitu bat edo dolozko hutsegite penala egitea, polizia eginkizunetan ari dela, edo foru lege honen 4. artikuluan aurreikusitako jarduketa arau funtsezkoak eragiten badie.

p) Bakarka nahiz taldeka obedientzia ukatzeko egintzak prestatzea.

q) Zerbitzutik kanpo mozkortzea edo droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psiko-tropikoak kontsumitzea, ohikoa denean edo poliziaren irudiari kalte egiten dionean. Mozkortzea eta aipatu substantziak kontsumitzea ohikotzat joko da, baldin eta urtebetean hiru aldiz gertatu dela egiaztatzen bada.

r) Droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psikotropikoak edukitzea, zerbitzuak berezkoak dituen jarduketan ondorioz ez bada.

s) Arrazoirik gabe, esleitutako zerbitzuan ez egotea edo bertatik alde egitea, lokartzea edo emandako zerbitzuak eskatzen duen arreta desbideratzen duen beste zerbaitetan aritzea.

t) Errendimendurik eza behin eta berriz eta arrazoirik gabe gertatzea, zerbitzuen eraginkortasunaren edo herritarren kaltetan bada, eta zerbitzurik ez ematea ustezko eritasuna izatearen aitzakian edo duen eritasuna baino larriagoaren plantak egitea, edo sendatzea eragotzi edo luzatzen duten jardueretan aritzea.

u) Eginkizunekin bateraezinak diren jarduera publiko edo pribatuetan aritzea.

v) Identifikaziorako bereizgarriak edo arauzko arma galtzea edo lapurtua izatea, arreta falta barkeazinatik.

x) Menpekoei galaraztea, mugatzea edo oztopatzea aitortuta dituzten eskubideez baliatzea, hutsegite oso larritzat ez bada jotzen.

y) Gertaera edo inguruabar larrietan lehenbailen lehen laguntzarik ez ematea, horretara beharturik egonez gero, delitutzat ez bada jotzen.

z) Polizia lanari dagozkion eginbehar eta betebeharrak ez betetzea, utzikeria larriaz jokatzegatik, modu larrian eta nabarmenean gertatzen bada.

aa) Gainerako segurtasun indar eta kidegoetako kideekiko laguntza falta agerikoa, hutsegite oso larritzat jotzen ez bada.

ab) Alarma-, salbuespen- eta setio-egoeretan, edota, hala erabakitzen bada, herritarren segurtasuna larriki nahasten denean, destinoko bulegoan edota gertuenean berehala ez agertzea.

ac) Zerbitzuko eginkizunetan edo nahitaezkoa denean arauzko uniforme, kategoria edo karguaren bereizgarriak, arauzko arma edo zehazten diren babes- edo ekintza-baliabideak ez eramatea, horretarako baimenik ez bada eman.

ad) Uniformez jantzita joatea edozein manifestazio edo bilkura publikotara, non eta ez den zerbitzuko eginkizuna edo uniformez joatea egokitzen den edo baimenduta dagoen ekitaldi ofiziala.

ae) Destino aldaketak eskatzea eta lortzea edozein ordainaren truke, irabazi asmoz edota aldaketa horiek arautzen dituzten baldintzak faltusuta.

af) Segurtasun indar eta kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzeari buruzko legerian ezarritakoaren urraketak, hutsegite oso larritzat jotzen ez bada.

aj) Lan arriskuen prebentziorako arauen urraketa, norberaren bizitza, osasuna edo integritate fisikoa, lankideena edo menpekoena arrisku larrian jartzen bada.

ak) Zerbitzuarekin zerikusia duen edozein eskabide, erreklamazio edo kexa izapidetzeari uko egitea behin eta berriro, hutsegite arintzat ez bada jotzen.»»

Zioak: Proposatutako testua egokiagoa da poliziaren esparrurako, beste polizia kidegoei buruzko araudirako ere erabili baita; hala, Barne Ministerioak erabili du Polizia Nazionalaren kidegorako, kidego horren diziplina-araudia duela gutxi aldatu duenean. Bestalde, testu hori hobeto egokitzen zaio Foruzaingoaren polizia integral eta erreferentziakoaren ereduari; izan ere, Foruzaingoaren eta Polizia Nazionalaren kidegoaren edo beste autonomia erkidego batzuetako polizia kidegoen diziplina araubidea homogeneizatzen ditu.

39. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeigarren atala aldatzeko zuzenketa.

Proposameneko hogeigarren ataleko testuaren orde besterik testu bat jartzea proposatzen dugu. Hona testua:

«Hogei. Honela idatzita agertuko da 61. artikulua:

“61. artikulua. Hutsegite oso larriak.

Hutsegite oso larriak izanen dira:

a) Hiru hilabeteko epean lanera ez joatea hiru aldiz baino gehiagotan, justifikatutako arrazoirik gabe.

b) Hiru hilabeteko epean, lau aldiz baino gehiagotan ez egitea lanaldi osoa, bidezko arrazoirik gabe.

a) Puntualtasuneko laugarren hutsegitea, bidezko arrazoirik gabe, aurrekoengatik hutsegite larriagotik zehapena ezarri denean eta hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

b) Lanera lau aldiz ez joatea, bidezko arrazoirik gabe, aurrekoengatik hutsegite larriagotik zehapena ezarri denean eta hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

c) Zerbitzuarekin zerikusia duen dolozko delitu batengatik zigortuta egotea epai irmoaren bidez, askatasuna kentzeko zigorra, urtebetetik gorakoa, baldin badakar edota Administrazioari edo pertsoneri kalte larria eragiten badie.

d) Kargua dela-eta ezagutzen dituen aferetan, sekretu profesionala eta isilpea urratzea, poliziaren eginkizunei edo edonori kaltea eragiten zaienean.

e) Entitateen edo partikularren eskupekoak eskatu edo onartzea, emaniko zerbitzuen esker onez edo oparitako.

f) Bakarka nahiz taldeka ez obeditzea.

g) Eginkizunetan ari dela, Nafarroako Foru Eraentzari zor zaion begirunea izatea eta Konstituzioari eta legeei men egin beharra ez betetzea.

h) Lanuzteetan, haien ordezkari ekintzetan edo hitzarturiko ekintzetan parte hartzea, zerbitzuen funtzionamendu egokia galarazteko helburuarekin.

i) Neutraltasun edo independentzia politikoa urratzea, esleituriko ahalmenak edonolako edo edonongo hauteskundeetan erabiliz.

j) Herritarrei, menpekoei edo Administrazioari kalte larria eragiten dien agintekeria, bai eta zaintzapean dituen pertsonak gizalegez ez tratatzea, mesprextatuz, diskriminatuz edo laidotuz.

k) Mozkortzea edota droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psicotropikoak kontsumitzea zerbitzuan ari dela edo zerbitzua betetzea mozkortuta edo aipatu substantzien eraginpean; egoera fisiko edo psikiko ez-ohikoan egonik, uko egitea bidezkoak diren egiaztapen teknikoak egiteari.

l) Arauzko armak zerbitzutik kanpo edo zerbitzuko egintzetatik kanpo erabiltzeari buruzko arauak hautsiz erakutsi edo erabiltzea, horren ondorioz gauzei edo pertsoneri kalte egiten bazaie edo alarma publikoa gertatu bada.

m) Zabarkeria larriaren ondorioz armak galtzea, istripuz nahiz lapurtuta.

n) Zerbitzua uztea, baldin eta ez badago ezinbesteko arrazoiren bat, uzte hori nagusi bati jakinaraztea eragozten duena.

o) Sekretu ofizialak argitaratzea edo modu desegokian erabiltzea, sekretutzat jo badira alor horretako berariazko araudiari jarraikiz.

p) Sekretu profesionala urratzea, poliziaren eginkizunei, edozein herritarri edo nortasun juridikoa duten entitateei kalte eragiten zaienean.

q) Gainerako segurtasun indar eta kidegoetako kideekiko laguntza falta agerikoa, zerbitzuari kalte

larria eragiten badio edo ondorio larriak badakartza herritarren segurtasunarentzat.

r) Arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo usteak, ezgaitasuna, adina edo sexu-joera, sexua, hizkuntza, iritzia, jatorria, bizilekua edo bere egoera pertsonal edo sozialaren ondoriozko beste edozein egoera dela-eta inolako bazterketa izan daitezkeen jarduketak.

s) Sexu-jazarpena eta lan-jazarpena. Azken hau da behin eta berriro jazarpen psikologikoko edo etsaigo-ekintzak egitea zerbitzu-harremanen esparruan.

t) Askatasun publikoak eta eskubide sindikalak erabiltzeko oztopo larriak jartzea.

u) Segurtasun indar eta kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzeari buruzko legerian ezarritakoaren urraketak, arau-hauste oso larritzat jotzen badira.

v) Edozein eginbehar profesional ez betetzea, zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia nabarmen eragotziz gero edo Administrazioari edo herritarrei kalte larriak eraginez gero edo pertsona edo ondasunentzat edo segurtasun publikoarentzat arrisku nabarmena sorraraziz gero.”»

Zioak: Proposatutako testua egokiagoa da poliziaren esparrurako, beste polizia kidegoei buruzko araudirako ere erabili baita; hala, Barne Ministerioak erabili du Polizia Nazionalaren kidegorako, kidego horren diziplina-araudia duela gutxi aldatu duenean. Bestalde, testu hori hobeto egokitzen zaio Foruzaingoaren polizia integral eta erreferentziakoaren ereduari; izan ere, Foruzaingoaren eta Polizia Nazionalaren kidegoaren edo beste autonomia erkidego batzuetako polizia kidegoen diziplina araubidea homogeneizatzen ditu.

40. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita batgarren atala kentzeko zuzenketa.

Proposatzen da hogeita batgarren atala kentzea eta, ondorioz, Nafarroako Polizieiei buruzko Foru Legearen 62. artikuluko testua, indarrean dagoena, mantentzea.

Zioak: Foru lege proposamenean artikulua honetarako jasotzen den testuak langileen arabide orokorra ekartzen du poliziaren esparrura, baina esparru hori oso espezifiko da, eta hala aitortzen da ere Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen kasuan, bai eta Euskadiko eta Kataluniako polizia autonomikoen kasuan ere.

Polizia kidego guztietan, erakunde armatu eta hierarkizatuak diren aldetik, diziplina araubidea Administrazio gainerako langileena baino zorrotzagoa da, eta ez dago inolako arrazoirik irizpide hori aldatzeko.

41. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita hirugarren atala aldatzeko zuzenketa.

Proposameneko hogeita hirugarren atalaren testua aldatzea proposatzen da, 65. artikuluko 1., 5. eta 6. idatz-zatiei dagokiena. Honako testua izanen du:

“Hogeita hiru. 1., 5. eta 6. idatz-zatiak honela geratuko dira:

65. artikulua. Hutsegite larriak edo oso larriak ezartzeko prozedura.

1. Hutsegite larri edo oso larriengatiko diziplina-espeditentea irekitzeko eskumena duen organoak behin-behineko etenaldia edo beste lanpostu batera atxikitzea erabaki dezake, kautelazko neurri gisa. Behin-behineko neurriak hartzeko ebazpena eman baino lehen, interesdunari entzunaldia emanen zaio, hiru egun baliodunetz. Nolanahi ere, behar bezala arrazoitutako presa edo arrisku handiko kasuetan, buruak edo komisario nagusiak arma eta kredentziala kendu ahalko dizkiote funtzionarioari kautelazko neurri gisa, eta organo horrek hiru egun balioduneko epean, gehienez ere, berretsi beharko du erabaki hori.

5. Hutsegite larri edo oso larriengatiko zehapen espeditentea hasi baino lehen, diziplina espeditentea irekitzeko eskumena duen organoak, gertaerak argitze aldera, aurretiazko informazioaldi bat irekitzeko agindu ahalko du, kasu zehatzaren zer-nola-koak ikertu eta prozedura abiarazi behar den ala ez den erabakitzeko. Zilegi izanen da aurretiazko informazio hori erreserbatua izatea, eta ez da hila-bete batetik goiti luzatuko, non eta espresuki ez den erabakitzen beste epe jakin baterako edo batzuetarako luzatzea. Idatz-zati honetan aipatzen diren aurretiazko jarduketengatik ez da zehapen prozedura irekitzat hartuko.

6. Prozedura diziplina-espeditentea irekitzeko eskumena duen organoak hala ebatzirik irekiko da, ofizioz edo salaketaren ondorioz gauzaturako jarduketaz baliatuz. Diziplina-espeditentea hasten duen ebazpenak egintzetarako instruktorea izendatuko du eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio eta, salatzailerik izan bada, hari ere bai. Funtzionario edo lan-kontratudun bat izendatuko da

instruktore, hautapen-prozeduran zuzenbideko lizentziatuaren titulua eskatu zaienetako bat hain zuzen. Ustez larriak diren hutsegiteen kasuan, goragoko lanpostua duen polizia kidegoko kide bat izendatu ahalko da horretarako.

Bai aurretiazko informazioan, bai diziplina prozeduran, funtzionarioak legelari baten laguntza eduki ahalko du.”

Zioak: 1. idatz-zatiaren testua hobetu nahi dugu, “ofiziala” hitzaren ordez “komisario nagusia” hitzak erabiliz, horixe baita zuzena dena. 5. idatz-zatian, azken puntua eta jarrai kentzea proposatzen dugu; izan ere, hartan espeditentuari legelari batek laguntza emateko aukera jasotzen zen, baina hori 6. idatz-zatira aldatzea proposatzen dugu, zuzenagoa delako, legelariaren laguntzaren aukera prozedura osoan izan baitezake eragina.

42. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita laugarren atala ordezteko zuzenketa.

Proposameneko testuaren ordez beste testu bat jartzea proposatzen dugu. Hona testua:

“Hogeita lau.

Nafarroako Polizien Kontseilua foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean eratuko da.”

Zioak: Foruzaingoaren Kontseiluaren ordez Nafarroako Polizien Kontseilua sortzeko proposamenarekin bat, epe jakin bat gorde beharra dago hura eratzeko.

43. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita bosgarren atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zuzenketaren asmoak ez ditu xedapen iragankorren berezko baldintzetatik bi betetzen; alde batetik, bilatzen den aparteko izaera gertatzen deneko unea eta apartekotasun horren menpean jarri nahi den enpleguaren adjetibazioa, hau da, hautatutako unean (titulazioaren “salbuespeneko” bost urteak kontatzen hasteko unea, hain zuzen) komisario lanpostuan daudenen behin-behineko izaera. Bestalde, xedapena kontraesanean dago Lanpostuak Betetzeko Erregelamenduko 27. artikularekin; izan ere, artikulua horrek exijitzen du, behin-behineko izendatuta izateko, kasuko deialdian onartuak izateko baldintzak betetzea.

Aipatutako gaez gainera, planteatutako asmoak berarekin dakar funtzio publikoan sartzeko eta barne-sustapenerako merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak urratzea, eta ezin dira salbuetsi arauetan titulazioa dela eta jasotako betebeharrak. Errespetatu beharrekoak diren printzipio konstituzionalak dira.

Aurrekoa gorabehera, modu egokian ebazten da gai hori zuzenketa baten bitartez gehitutako xedapen gehigarri berri baten bitartez.

44. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita bosgarren atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko bigarren xedapen iragankorra aldatzen du.

“Titulazio akademikorik eduki gabe komisario eginkizunetan diharduten profesionalek (...), bi urteko epean; (...) iraungi beharreko egoera pertsonal gisa hartuko da.”

Zioak: Barne-igoerako txandak eskatzen du sustapenerako bideak irekitzea, baina denbora aldetiko egonkortasunarekin mantendutako egoerak errespetatuta.

45. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita seigarren atala aldatzeko zuzenketa.

Proposameneko hogeita seigarren atala aldatzea proposatzen da. Honako testua izanen du:

“Hogeita sei. xxx Xedapen iragankorra.

Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Plan Orokorra aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, ateak itxita egin beharreko saioan, ezagut dezan.”

Zioak: Segurtasun zerbitzuak bereziak direnez eta administrazio publiko bat baino gehiago direnez Nafarroako polizien titularrak, ezin dira plan zuzendariak, hertsiki hartuta, planteatu; izan ere, segurtasun publikoari buruzko gure legeetan aurreikusitako segurtasun planak izanen dira poliziak egoki planifikatzeko tresnak, betiere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Estatuko Administrazioarekin eta udalekin koordinatzeko aurreikusitako organoen bitartez.

46. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legeari xedapen iragankor bat gehitzea, honako testuarekin:

“Xedapen iragankorra.

Tokiko poliziaren kidegorik izan ez, 3.000 biztanle edo gehiago eduki, udaltzainak ere eduki eta, foru lege honek indarra hartzen duenetik bost urteko epean tokiko poliziako kidego bat sortzea aurreikusita duten toki entitateei baimena eman ahalko die Nafarroako Gobernuak tokiko poliziako laguntzaileak aldi baterako kontratatuzeko, hain zuzen ere foru lege honetan aurreikusitako eginkizunak betetzeko tokiko poliziako kidego hori sortu bitartean.

Polizia kidegoa sortzeko prozedura aipatutako epean bukatzen ez bada, izenpetutako kontratu administratiboak amaiarazi beharko dira.

Xedapen honen arabera eginkizunak kontratazioak foru legeko 19. artikuluan ezarritako baldintzak betez egin beharko dira.”

Zioak: Konponbide arinak ezartzea toki entitateek segurtasun publikoaren arloan dauzkaten beharrak asetzeko.

47. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legeari xedapen iragankor bat gehitzea, honako testuarekin:

“Xedapen gehigarria. Gutxieneko adinaren baldintza.

Foru lege honek indarra hartu eta lehenengo bi urteetan, 30.1.b) artikuluan aurreikusitako sarreraprobetara onartzeko baldintza 35 urtekoa izanen da, eta lege-testuak indarra duen bi urtez behin urtebete jaitsiko da adin hori, harik eta artikuluetan finkatutako 30 urteko adinera heldu arte.”

Zioak: Proposameneko laugarren atala aldatzeko zuzenketa dagokionez, komeni da agertoki gradual bat ezartzea gehieneko adina gutxitzei dagokionez, halako moduz non Nafarroako polizia kidegoek aukera izanen baitute antolamenduzko aldaketetara pixkanaka egokitzeko.

48. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hogeita zazpigarren atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako polizia kidegoetan destinorik gabeko bigarren jarduerari buruzko zuzenketarekin bat etortzeko, atal horren aurka gaude, zeren eta figura juridikoaren bideragarritasuna ukatuz, ezin baitzaio hari modu iragankorrean eutsi, garapenerako lege-babesik izanen ez lukeen erregelamendu erako erregulazio bat eduki arte. Bestalde, gizarteari ezin zaio aurkeztu, hain gutxi bizi dugun ekonomia, finantza eta langabezia krisi egoera honetan, Nafarroako polizietan destinorik gabeko bigarren jarduera abiaraziko dela, figura horrek ekarriko lukeelako funtzionarioak, adin jakin batek aurrera eta aldi berean jardunean egonda, etxera bidaltzea soldata kobratuta.

Bestalde, poliziako funtzionarioak bereizketarik gabe destinorik gabeko bigarren jarduerara pasatzea 55 urte betetzerakoan, Nafarroako Polizia Kidegoak larriki deskapitalizatzea izanen litzateke, bereziki tokiko polizien kasuan, eta horrek zerbitzua emateko zailtasun handiak ekarriko litzuke.

49. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hogeita zazpigarren atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko zazpigarren xedapen iragankorra aldatzen du.

“Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean (...) eta dagokien kategoriako ordainsari osagarri orokorren ehuneko laurogei jasotzen jarraituko dute.”

Zioak: Bigarren jardueraren auziak aspaldi behar zuen araututa; hortaz, badira azterlanak horri buruz, eta azkar ekin behar zaionez auzi honi, ez dago justifikatuta urtebeteko epea ematea, aski delako 3 hilabeteko epea.

50. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hogeita zortzigarren atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Atal honekin, proposamenean egiten den planteamendua Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko Lege Organiko indarduneko 6. artikuluko

ko zazpigarren idatz-zatian ezarritakoaren aurkako da; artikulua hori, izan ere, Nafarroako polizia kidego guztiei aplikatzekoa da eta honakoa ezartzen du, hain zuzen ere: “Segurtasun indar eta kidegoetako kidea izatea edozein jarduera publiko zein pribatutarako bateraezintasun arrazoia da, salbu eta bateraezintasunei buruzko legeetan salbespen gisa jasotako jarduere kasuan.”

Horrenbestez, ezin da gai hori erregulatzen erregelamendu bat egin, gai hori guztiz zehaztuta baitago Estatuko oinarrizko arauetan, bai eta Nafarroako Administrazioetako Langileen Estatutuan ere.

51. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hogeita zortzigarren atala aldatzeko zuzenketa; atal horrek 8/2007 Foru Legeko zortzigarren xedapen gehigarria aldatzen du.

“Erregelamendu bidez ezarriko dira (...) segurtasun publikoarekin nahiz pribatuarekin lotutako eginkizunetan jardutea, bai eta Nafarroako administrazio publikoekin harreman ekonomiko zuzena duen edozein jarduera ere.”

Zioak: Arau zehatzagorik ematen ez den bitartean, bateraezintasunak izaera ekonomikoko lotura edo alderatzea izan dezaketen gaiak ere hartu behar ditu.

52. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hogeita bederatzigarren atala aldatzeko zuzenketa.

Proposameneko hogeita bederatzigarren atala aldatzea proposatzen da. Honako testua izanen du:

“Hogeita bederatzi. Bederatzigarren xedapen gehigarria. Ordainsariei buruzko erregelamendua.

Foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak ordainsariei buruzko erregelamendu bat onetsiko du, Nafarroako Foruzaingoaren kidegoko ordainsarrietan egun dauden aldeak gutxitzeko, baina horrek ez du, zenbaketa orokorrean, langileria gastuak handitzea ekarriko.”

Zioak: Xedapen gehigarriek, daukaten edukia dela eta, erregelamenduetarako jotzeak jaso behar dituzte, baina dagokie garapen horren azken esanahia; izan ere, eduki hori berariaz

aurreikusitako xedapenen bitartez osatu beharko da, azterlanak, proiektuak eta kontsultak egiteko behar diren faseekin.

53. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamargarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Hamargarren xedapen gehigarria. Proba psikoteknikoak. Lege honetan aurreikusitako enpleguetara sartzeko prozedura guztietan, proba psikoteknikoak 8/2007 Foru Legeko 29.1 artikuluan ezarritako moduan eginen dira, bai barne-igoerako txandan bai txanda irekian edo librean.”

Zioak: Nafarroako Parlamentuak onetsirik ditu bi mozio; mozio horien testua ez da oraindik arau mailara eraman, eta ez da haien emaitza aplikatu, baina kasu honetan uste dugu eskematikoki jaso beharra dagoela legearen testuan.

54. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria. Behin-behineko izendapenen balorazioa lanpostuak eskuratzearen ondorioetarako.

Berez duten lanpostua baino goragoko lanpostuetan aldi batez aritu diren Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioei, baldin eta aldi baterako izendatuak izan ziren lanposturako hautapen-prozesuak gainditzeko badituzte, behin-behinekoz egin dituzten aldiak enplegua jabetzan izan balute bezala kontatuko zaizkie, betiere soilik betetakoaz gorako lanpostuetako hautapen-prozesuetara sartu ahal izateko eraginetarako.”

55. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria. Sartu eta mailaz igotzeko prozesuak.

Nafarroako polizia kidego desberdinetara sartzeko prozeduretan, prestakuntza ikastaroren baterako

onartua izateko legezko baldintzetan dagoen izangairen bati ikastaro hori konbalidatuztat ematen baldin bazaio, lanpostu bera Nafarroako beste administrazio publikoren batean betetzeagatik, azken administrazio horrek eskatu ahalko du ezen, behin kidego edo administrazioa hautatu ondoren, hutsik gelditzen den hurrengo lanpostua eskain dakiola zerrendako hurrengoari; azken hori, izan ere, ikastaroa konbalidatu zaion izangaiak hasiera batean hautatu duen administrazioako praktiketako funtzionario gisa onartuko da prestakuntza ikastaroan.

Behin prestakuntza ikastaroa bukatu ondoren eta ikastaroa konbalidatu zaion izangaiak hautaturiko polizia kidegoan sartu ondoren, jabetza hartzeak berekin ekarriko du une horretara arte edukitako lanpostuari berariaz uko egitea, eta interesduna lanpostua gorde gabeko borondatezko eszedentziaren egoeran geratuko da. Kasu horretan, hutsik geratu den lanpostua betetzen zegoeneko administrazioak, aipatutakoaren ordezkari prestakuntza ikastaroan sarturiko izangaia izendatuko du.

Nafarroako polizia kidegoen arteko promozio prozeduren kasuan, deia egiten duen administrazioan sartzeko berekin ekarri du ordura arte bete izandako lanpostuari uko egitea.”

56. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko bi lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Zioen azalpeneko 4. eta 7. lerrokaden zati bat kentzen da. Hona testua:

“Alabaina, Foru Legeak indarrean daraman bi urte baino gehiagoko epe honetan, metaturiko esperientziak erakusten duena da arauak horren zenbait alderdi aldatu eta zehaztu beharra, bai eta beste batzuk garatu beharra.”

“Foru lege proposamen honen asmoa da, orobat, aurrerapausoak ematea gure Foru Komunitatean Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoen eta Nafarroako polizien artean dagoen osagarritasunean, lankidetzan eta elkarlanean, betiere ardatz gisa harturik leialtasun instituzionala eta elkarrekin begirunea.”

Zioak: Testua hobetzen da, lege testu batean behar ez diren baieztapenak (lehenengo kasuan, ezegokiak) kenduta. Kendutako bigarren lerrokadan ere, testua hobetzen da; izan ere, Estatuarekiko koordinazioa errealitate bat da, eta ez da beharrezkoa proposamenean ageri den bezala agertzea.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2010eko martxoaren 18ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko irailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“Eraginkortasun” dioen tokian “efizientzia” esatea proposatzen da.

Zioak: Efizientziaren kontzeptuak eraginkortasunaren kontzeptua biltzen du. Gainera, kostuaren faktorea gehitzen du bilatzen diren helburuak lortzeko erreferentzia gisa. Erreferentzia hori funtsezkoa da eutsiezintasun ekonomikoko arriskuen menpe dauden osasun sistemetan.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“3. Irizpide orokorrak zehaztea, eraginkortasun handiagoa lortzeko, eta haiek babestera eta ziurtatzera zuzendutako neurri administratiboen esparrua ezartzea; neurri horiek administrazio publiko-entzako kudeaketarako irizpidetan gauzatu behar dira”.

Zioak: Gure ustez irizpide orokorrak zehaztea eta neurri administratiboetarako esparrua ezartzea ez dira printzipio hutsetan geratu behar; aitzitik, zuzenketan proposatzen dugun bezala, kudeaketarako irizpidetan gauzatu behar dira.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluari 2. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen dugu “itundu guztietan” hitzen ordeze, honako hitzak sartzea “soilik itundutako zerbitzuei dagokienez”.

Zioak: Ikastetxe itunduak adierazpideak nola baiteko nahastea eragiten du, zeren eta ikastetxe batzuk egon baitaitezke non zerbitzu jakin batzuk baizik ez diren ituntzen. Foru lege proposamenak ez ditu osasun zentro pribatuak bere aplikazio esparruan sartzen. Horrenbestez, ez lirateke sartu behar zentro itunduetako itundu gabeko zerbitzuak.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3.1 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testuaren amaieran, honako hitzak gehitzea proposatzen dugu: “egoera pertsonalarengatik inongo bazterketarik eragin gabe”.

Zioak: Ekitatearen ideia osatzen da inor baztertua ez izateari buruzko eskubide konstituzionalarekin.

5. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Foru lege honen aplikazio-esparruak foru lege honetako 11. artikuluan aipatzen diren pertsona guztiak hartzen ditu. Gizartearen ikuspuntutik ahulak diren pertsonen edo kolektiboen kasuan, egoera hori eragiten duten determinante sozialak gutxitzeko neurriak hartu beharko dira”.

Zioak: Zeren eta “estandarretik” ateratzen diren kolektiboetan haien osasuna hobetzeko gauzatu beharreko politika aktibo publikoak bai baitaude. Ez soilik osasun mailako neurriak.

6. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Pertsonen duintasunarekiko (...) jaioleku, etnia, sexu...”

Zioak: Terminologia hutsezko kontu bat da. Gure ustez etnia hitza egokiagoa da 2. idatz-zatian adierazi nahi denerako. Eztabaidan dago arraza bakarrak giza arraza ote den, eta benetan daudenak etnia desberdinak ote diren.

7. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3 artikuluan ondoko testua sartzea proposatzen da, beste bi idatz-zati gisa:

“1. Irisgarritasun unibertuala: inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, bitartekoek eta gailuek bete behar duten baldintza, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izateko, segurtasun eta erosotasun egoeran eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz betiere. Ororentzako diseinua estrategia du abiapuntu, eta ulertzen da hori ez dela eragozpen izanen erabaki beharrekoak diren arrazoizko egokitzapenak egiteko.

2. Ororentzako diseinua: erabiltzekoak diren osasun-zerbitzuen, instalazioen eta profesionalen multzoa, ahal dela, inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, gailuak eta bitartekoak ahalik eta pertsona gehienek erabiltzeko moduan pentsatu edo proiektatu behar dira hasiera batetik”

Zioak: Erabateko irisgarritasuna ziurtatzea.

8. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluari beste idatz-zati, 4.a, bat gehitzeko zuzenketa.

“4. Osasuna garatzeko ekintzak lehentasunez osasunaren sustapenera eta gaixotasunak prebenitzera orientatuta egotea, bai osasun erakundeek ekintzetan, bai osasunaren gaineko gai determinagarrietan jarduten duten gainerako administrazioen ekintzetan; esate baterako, osasun ekintzak, gizar-

te ongizatekoak, etxebizitzakoak edo ingurumenekoak, besteak beste”

Zioak: Gure ustez, horrela idatzirik, hobeki jasotzen du osasunerako eskubideak ez duela soilik hartzen osasun arreta beharrezkoaren eta ego kiaren kontzeptua, baizik eta, baita ere, osasuna determinatzen duten faktore nagusiak; esate baterako, osasun baldintza egokiak, nutrizio egokia, etxebizitza egokia, lanean eta ingurumenean baldintza osasungarriak edukitzea eta hezkuntzarako sarbidea, besteak beste.

9. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluari beste idatz-zati, 5.a, bat gehitzeko zuzenketa.

“5. Osasuna dimentsio psikologiko eta soziala dituen fenomeno baten gisara hartzea osasunaren arloko politikak formulatzerakoan, bai eta zerbitzuak antolatzerakoan ere, osasunaren sektoreaz bestelako sektoreek osasuna hobetzeko egiten dituzten ekintzak jasoz, eta osasunaren sektorea rekin koordinatzea”

Zioak: Gure ustez, horrela idatzirik, hobeki jasotzen du osasunerako eskubideak ez duela soilik hartzen osasun arreta beharrezkoaren eta ego kiaren kontzeptua, baizik eta, baita ere, osasuna determinatzen duten faktore nagusiak; esate baterako, osasun baldintza egokiak, nutrizio egokia, etxebizitza egokia, lanean eta ingurumenean baldintza osasungarriak edukitzea eta hezkuntzarako sarbidea, besteak beste.

10. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

10. idatz-zatia gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua: “Tratu gizatiarra, errespetuzkoa eta baldintza pertsonalei eta ulermenezkoei egokitutakoa jasotzeko eskubidea”

Zioak: Betebeharren zerrenda osatzen du tratu pertsonalari buruzko aipamen batekin; izan ere, horrek plus bat gehitzen dio pertsonaren duintasuna aintzat hartzeari.

11. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Osasuna sustatzeko eta gaixotasunaren prebentziorako neurrietarako eskubidea, bai eta osasunaren arloko heziketa-ekintzetarako eskubidea ere. Modu gero eta progresiboagoan bilduko da lerro horietarako aurrekontu-zuzkidura eta azturak hobetzeko eta Nafarroako osasun arazo nagusiekin lotutako arriskuak gutxitzeko jarduketak jasoko dira, bai eta gizarte talde antolatuek, toki entitateek eta elkarteek osasuna hobetzeko ekintzetan parte hartzera bideratutako ekintzak ere.”

Zioak: Jada adierazi dugun bezala, Lurraldeen arteko Kontseiluak 2010eko martxoaren 18an izenpetutako dokumentuan, osasunaren sustapena eta gaixotasunaren prebentzioa nabarmentzen dira osasungintzak azken urte hauetan izan duen arrakastaren gako gisa. Gainera, neurri zehatzetan, honakoak ageri dira: “aztura osasungarriak sustatzea (jarduera fisiko egokia, elikadura orekatua...) eta osasun publikoari lehentasuna ematea. Hemen, ordea, aurrekontuen bidez adierazitakoaren aurkakoa egiten ari da.

12. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikuluko 5. idatz-zatiko b) letra ordeztzeko zuzenketa.

Testua ordeztu eta honako hau proposatzen da:

“Foru lege honetan aitortutako eskubideekiko errespetuari buruzko auditoriak egin daitezen eskatzeko eskubidea...” (gainerakoa berdin).

Zioak: Garrantzi publiko hain handia duen gai batean, kontrola beti administrazio publikoaren esku geratu beharko litzateke, eta, bestela ere, ekimena ekimen sozialari eman beharko litzaioke.

13. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikuluari 6. eta 7. idatz-zatiak gehitzeko zuzenketa.

“6. Osasun administrazioaren diru-laguntzen bidez finantziazioa jasotzeko eskubidea; finantzia-

zio hori pixkanaka handitzen joanen da eta adjudikaziorako lehentasunak eta arloak definituko ditu modu gardenean eta osasuna hobetzeko unean uneko behar nagusien arabera egokituta.

7. Osasun administrazioak osasunean eragina duten aztura nagusiekin (ariketa fisikoa, elikadura, substantzien kontsumoa, bide segurtasuna eta beste batzuk) eta pertsonen eta kolektiboen arteko osasun-egoeretan desberdintasuna eragiten dituzten osasun determinanteak gutxitzearekin lotutako sektoreen arteko Administrazioarekiko lankidetzaren organoetan parte hartzeko eskubidea.”

Zioak: Jada adierazi dugun bezala, Lurraldeen arteko Kontseiluak 2010eko martxoaren 18an izenpetutako dokumentuan, osasunaren sustapena eta gaixotasunaren prebentzioa nabarmentzen dira osasungintzak azken urte hauetan izan duen arrakastaren gako gisa. Gainera, neurri zehatzetan, honakoak ageri dira: “aztura osasungarriak sustatzea (jarduera fisiko egokia, elikadura orekatua...) eta osasun publikoari lehentasuna ematea. Hemen, ordea, aurrekontuen bidez adierazitakoaren aurkakoa egiten ari da. Gainera, gure ustez, garrantzitsua da elkarte eta taldeek parte hartzea osasuna hobetzeko politikak aurrera eramateko sortzen diren organoetan.

14. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5.3 artikuluan, “informazioa” hitzaren ordeztzeko, “informazio irisgarria” jartzea. Testua honela geratuko da:

“Zein osasun-zerbitzutara jo dezaketen eta horiek erabiltzeko behar diren baldintzez informazio irisgarria lortzeko eskubidea.”

Zioak: Erabateko irisgarritasuna ziurtatzea.

15. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“4. Nafarroako osasun zerbitzuen zorroan bildutako tekniken, teknologien edo prozeduren multzoa jasotzeko eskubidea, ahal dela Nafarroako Foru Komunitateko zentro eta zerbitzu publikoetan.”

Zioak: Orain arte gertatutakoak eta gaixoak zentro pribatuetara gero eta gehiago deribatzen diren joera ikusita, osasun publikoa aldeztu behar dugu.

16. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5.6 artikuluan, “informazio” hitzaren ordoren “irisgarri” hitza jartzea. Testua honela geratuko da:

Norberaren osasun egoerari buruzko eta kasuko laguntza-prozesuan aplika daitezkeen teknika diagnostikoetarako, terapeutikoetarako edo/eta farmakologikoetarako aukerei buruzko informazio irisgarri, ulergarri, nahikoa eta egokia jasotzeko eskubidea.

Zioak: Erabateko irisgarritasuna ziurtatzea.

17. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluari 7. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

“Parte hartzeko” aditzaren ondoren, honako hitzak gehitzea proposatzen dugu: “eta, kasua bada, erabakitzeko”

Zioak: Testuaren xedea argitzen da. Testuan, izan ere, ez da argi geratzen nori dagokion erabakia, gaixoari edo osasun arloko profesionalari edo biei batera. Bestalde, bat dator 7. artikuluan aipatzen den –eta, horrenbestez, aitortzen den– baimena imitatzearekin.

18. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluari 9. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

Testuaren lehenengo esaldian, “eta, informazio...” hitzen ondoren testu hau gehitzea proposatzen da: “eta, kasua bada, parte hartzeko”

Zioak: 6. eta 7. idatz-zatietan parte hartzeari buruz aitortzen den eskubidearekin bat etortzeko.

19. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa

Beste bi idatz-zati gehitzea proposatzen da, honako testuarekin:

“13 bis. Haien prozesuarekin eta osasun-etxe publiko eta pribatuetako egonaldiekin zerikusia duen informazioa isilpean mantentzeko eskubidea.

13 ter. Aplikatzen zaizkien pronostiko- eta diagnostiko-prozedurak eta prozedura terapeutikoak irakaskuntza-, prestakuntza- edo ikerketa-proiektu baterako erabiltzen badira, horri buruz ohartaraziak izateko eskubidea. Proiektu horiek ezin izanen dira izan, inolaz ere, arriskutsuak gaixoen osasunerako. Edonola ere, ezinbestekoa izanen da gaixoak alde aurretik eta idatziz baimena ematea eta sendagileak eta kasuko osasun-zentroko zuzendaritzak hura onartzea.”

Zioak: Bi eskubide horiek orain indargabetu nahi den aurreko legedian jasota ageri ziren.

20. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hauxe da artikulua berriaren testua:

13. quater. “Tratamenduari uko egiteko eskubidea 7. artikuluan adierazitako kasuetan ezik, horretarako alta eskatu eta sinatu beharko dutelarik beren borondatez. Horri ezezkoa eman ez gero, zentroko zuzendaritzari egokituko zaio alta ematea.”

Zioak: Osasun laguntzaren esparruko eskubide orokorren zerrenda osatzen du.

21. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa.

5. artikuluari –“Osasun laguntzaren esparruko eskubide orokorrak”– honako idatz-zatiak gehitzea:

“14. Heriotzaren prozesuan, duintasun osoa izateko eskubidea.

15. Zainketa aringarri integralak jasotzeko eskubidea eta heriotzaren prozesuan minaren aurkako tratamendu egokia.”

Zioak: Badirudi osasun laguntzaren arloko eskubide orokorren katalogoa zabaldu beharra dagoela.

22. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa.

5 bis) artikulua berria –"Eskubideen definizioa"– gehitzea proposatzen da. Hauxe du testua:

"Foru lege honen ondorioetarako, horrela uler-tuko dira zainketa aringarriak: Osasun arloko esku-hartzeen multzo koordinatua, gaixoen eta haien familiartekoei bizi kalitatea hobetzerazuzen-dua, laguntza integral batetik. Horien bidez, gaixotasun terminal batekin lotutako arazoei aurre egiten zaie, prebentzioaren eta oinazearen arintzearen bidez, bai eta minaren eta beste sintoma fisiko edo/eta psikiko batzuen identifikazio, balorazio eta tratamenduaren bidez ere."

Zioak: Badirudi zuzen definitu behar dela zer diren osasunaren arloko eskubideak.

23. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa.

Artikulu bat gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

".. artikulua.- Osasun erakundeek gaixoei ematen dizkieten bermeak.

Gaixoari zuzeneko laguntza emateaz arduratzen den osasun erakundeak behar diren bitartekoak jarri beharko ditu gaixoaren eskubideak, lege honetako 5. artikuluan jasotakoak, ez daitezzen murriztu inongo kasu edo egoeratan, ezta profesionalak ezezkoa ematen duenean edo falta denean edo bestelako bat-bateko arrazoiak tartean direnean ere."

Zioak: Funtsezkoa da, hain zuzen ere lege honetan, gaixoen eskubide guztiak bermatzea, inguruabarrak gorabehera.

24. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6 artikulua kentzeko zuzenketa.

Testu osoa kentzea.

Zioak: Lege organiko baten prozedurarako gordetako gaiak arautzen ditu: 3/1986 legerako hain zuzen. Bestalde, proposamenaren testuak lege horretako 1. eta 3. artikulua kopiatu besterik ez du egiten. Horrenbestez, legegintzazko praktika zuzenak gomendatzen du segurtasun juridikoa lortzeko, jokatzeko modu hori saihestea.

25. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

"2. Transmititzekoak diren gaixotasunak kontrolatze aldera, (...) bai eta transmititzeko arriskua dela-eta beharrezkotzat jotzen diren neurriak ere, haien premiari buruzko ebidentzia zientifikoaren arabera."

Zioak: Modu orokorrean ezarrita gera ez dadin, arbitrarioa edo irizpide politikoen arabera gerta baitaiteke, pertsona batzuen bazterketa ez eragiteko.

26. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

"Pertsonari informazio osoa... bere osasunaren alde ezinbestekoak diren interbentzio klinikoak egiteko; halakoetan, izan ere, legezkotasunaren errespetu handienez oinarrituriko erabakiak hartuko dira, horien barne dela baimen judiziala eskatzea, bidezkoa bada, eskubide-talkarik izanez gero."

Zioak: Lehentasuna eman behar zaio pertsonari nahi duen gisako laguntza emateko eskubideari. Egia da osasun publikorako arrisku-egoera batzuk egon daitezkeela, eta horrexegatik aurki dezakegu eskubide-talkarik gertatzen den egoeraren bat. Hori dela eta, baimen judizialaren eskabidea sartzen dugu eskubideak elkarren aurkakoak direnerako edo eskubide-talkarik gertatzen denerako.

27. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Ordezteko zuzenketa.

Proposatzen dugu 8. artikuluan “6. artikuluan zehaztutako esku-hartze publikoetan honako arauak bete beharko dira” testuaren ordean honako esaldia jartzea:

“Larritasuneko edo premiako osasun-arrazoiek exijitzen dituzten kasuetarako, 3/1986 lege organikoan aurreikusitako neurriak modu konpetentean ezartzeko honako arauak bete beharko dira”.

Zioak: 6. artikulua kentzeko zuzenketa adierazitakoarekin bat etortzea.

28. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluari a) letra berria –lehenengo letra, alegia– eransteko zuzenketa.

“a) Gaixo bakoitzaren autonomia printzipioari lehentasuna ematea proposamen terapeutikoen aurretik”

“b) Osasun agintarien borondatezko lankidetzari...”

(...)

“f) Interbentzioak kasuan kasuko...”

Zioak: Gaixoak erabakitze eskubidea eduki behar du. Bioetikan autonomia eta justizia printzipio gorenak dira, ongintzaren eta beste batzuen gainetik.

29. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Osasun arreta publikoa (...) udaletan bizi diren pertsona guztiak hartzen ditu. Egoera horrek Nafarroako udaletan bizi diren etorkinak ere...”

Zioak: Osasun arreta orokorragoa da osasun laguntza baino. Gure asmoa ez sartzeko soilik osasun ekintzak. Kontzeptu berrian osasunaren sustapena ere sartzeko da, beste zio batzuetan azaldutakoaren bidetik.

30. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“3. Berariaz, lege indardunen arabera, osasun laguntza publikoa ziurtatuko zaie artikuluko honetako 1. eta 2. idatz-zatietan jasota ez dauden adingabeak eta emakume haurdunei. Ulertuko da laguntza publiko horrek zerbitzuen zorroan sartzeko diren prestazio guztietarako sarbidea hartzen duela, baita prebentziozko prestazioetarako ere”.

Zioak: Adingabeak eta 1. eta 2. idatz-zatietan sarturik ez dauden emakume haurdunak jasotzea, bai eta larrialdiko edo emergentziako egoeran dauden pertsonak ere, legediak horixe baitio, nahiz eta lege honek haiek ez aipatu.

31. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“4. Lege indardunei jarraituz, jotzen da, halaber, berme hori larrialdiko edo emergentziako osasun laguntzara ere hedatzen dela”.

Zioak: Adingabeak eta 1. eta 2. idatz-zatietan sarturik ez dauden emakume haurdunak jasotzea, bai eta larrialdiko edo emergentziako egoeran dauden pertsonak ere, legediak horixe baitio, nahiz eta lege honek haiek ez aipatu.

32. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluari 4. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

3. puntuaren amaieran honako hitz haiek gehitzea proposatzen da: “Europar Batasuneko ordenamendutik eta aplikatzekoak diren nazioarteko nahiz nazioarteko itunetatik ondorioztatzen diren betebeharrak kendu gabe”.

Zioak: Larrialdi kasuetako osasun laguntzak ez du salbuespenik ekarri behar aipatutako testuetatik ondorioztatzen diren betebeharrak betetzeko.

33. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Lehentasunez joko da oinarrizko osasun laguntza pertsona bakoitzaren helbidetik hurbilen dauden zerbitzuek emanen dutela, horixe baita zerbitzu horiek antolatzeko modurik efizienteena. Aurrekoa ezertan ere kendu gabe, Nafarroako osasun sistema publikoko erabiltzaileei aitortuko zaie oinarrizko osasun laguntzako sendagile orokorra eta sendagile pediatria libreki hautatzeko eskubidea, bizitokiaz besteko barrutietan”

Zioak: Ezin dugu oinarrizko osasun laguntzako sendagilea edo pediatria libreki hautatzeko eskubidea deuseztatu, baina uste dugu oinarrizko osasun laguntza herritarrengandik hurbilen dauden zerbitzuek eman behar dutela, osasuna sustatzeko eta gaixotasunei aurrea hartzeko azken urte hauetan lortu ditugun arrakasten gakoetako bat izaten jarrai dezaten.

34. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluari 1. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

Testuaren amaieran honako hitz hauek gehitzea proposatzen da: “Halaber, termino beretan, sendagile psikiatra hautatzeko eskubidea egonen da”

Zioak: Eskubide hori 10/90 legean jasota zegoen, eta ez dago inongo arrazoirik hura kentzeko.

35. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Osasun sistema publikoko (...) indarra duten arauen arabera. Ahaleginak eginen dira zentro horiek orientazioko eta sexu hezkuntzako zerbitzuen zorroak izan ditzaten, gizonezkoei nahiz emakumezkoei zuzenduta, eta berariaz gazteei”

Zioak: Antzinako FOSHEZ zentroak ELZ bihurtzeak hasiera batean FOSHEZ zentroek zaukaten filosofia aldatzea ekarri du; hori dela eta, nahi

duguna da berriz ere sexu hezkuntza egon dadila, eta gazte, gizonezko eta emakumezkoen erreferentzia izan dadila.

36. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Nafarroako osasun sisteman (...) gehieneko aldiak ziurtatuak izateko. Ekintza batzuk sustatuko dira itxaron-zerrendeei buruzko informazioa jendearen eskura egon daitezen, halako moduz non pertsona batek, denbora errealean, modua izanen baitu jakiteko zenbat denboraz itxaron behar duen; horrela, izana ere, itxaron zerrenden gaineko kontrolaren berme efektiboa dela-eta dauzkan eskubiak erabili ahal izanen ditu”

Zioak: Bilatzen dugu pertsona guztiek hasiera batetik –hau da, diagnosiaren unetik– jakin dezate-la zein egoeratan dauden. Horrela, izan ere, erreserbaren kontzeptua saihestuko da, aldi horretan gaixoak ez baitu inongo informaziorik.

37. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

15. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Pertsona orok (...) Legean ezarritako moduan. Osasun administrazioek sendagaien erabilera arrazionalari buruzko neurriak sustatuko dituzte, horren barne direla ebidentzia zientifikoak abalaturako erabilera terapeutikoa duten sendagaien preskripzioa, laguntza maila guztietan sendagai generikoen erabilera areagotzea eta sistemako profesionalei sendagaiei buruzko aholkua ematea, interesak alde batera utzita”

Zioak: Sendagai generikoen erabilera eta haiek erabiltzearen aldeko kanpainak. Gastu farmazeutikoa benetan kontrolatu nahi badugu, maila guztietan egin beharko dugu, eta, gainera, erabilera terapeutikoko preskripzioak ebidentzia zientifikoren abala izateak gutxienez ere balioko du enpresa farmazeutikoen interesak gutxitzeko, gastua arrazionalizatzen laguntzeaz gainera.

38. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16 artikuluan ondoko testua sartzea proposatzen da:

“Zeinuen hizkuntza erabiltzen duten gorrek, nolana ere, eskubidea dute zeinuen hizkuntzako interprete batekin egoteko, informaziorako eta komunikaziorako irisgarritasuna ziurtatzeko. Komunikaziorako irisgarritasuna ziurtatzeko, osasun zentroek zeinuen hizkuntzako interpreteen zerbitzu bat eduki beharko dute kontratatuta, gaixo gor batek haren premia duenerako, Espainiako zeinuen hizkuntzak arautu eta gorren, entzumen-erregaitasunak dituztenen eta gor-itsuen ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoak aitortzen dituen urriaren 23ko 27/2007 Legea betetzeko”

Zioak: Erabateko irisgarritasuna ziurtatzea.

39. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Pertsona orok (...) zentroko arauak errespetatu beharko ditu; halaber, gaixo bakoitzarentzako erreferentziako profesionalak egonen dira, erakundeko egonaldiak irauten duen guztirako”

Zioak: Elkarrizketa eta harreman hobea erraztea.

40. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Edozein pertsonak laguntza izpirituala eskatu ahalko du, sinesmenak bereizi gabe, eta hartarako sarbidea ziurtatuko zaio”

Zioak: Ez dago zertan errefusatu; hau da, egon badago, eta norberak ematen dio ezezkoa. Logikoa izanen litzateke norbera izatea eskatzen duena; eta, bestela, ez egotea. Gainera, gaur egun “errefusatu” kontzeptua erabiltzen bada, jada badagoen zerbait aipatzeko da; ospitaleetan, esate baterako, sinesmen bakar baterako laguntza izpirituala ematen da.

41. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua. 3. eta 4. idatz-zatiak gehitzeko zuzenketa; horrekin, aurrerantzean 3. idatz-zatia 5.a izanen da.

“3. Pertsona bakoitzari alta planifikatzeko eskubidea ziurtatuko zaio, ospitaleratuta dagoenean, halako moduz non, altan zainketak behar baditu, jarraitutasuna ziurtatuko baitzaio.

4. Ospitaleratzea eskatzen duten erakundeetan, ohe kopuru aldakorrek gelen premiei eta lehentasunei buruzko azterlanak eta plangintza egingen dira. Halaber, osasunaz besteko ostalaguntzetarako sarbideari buruzko azterlanak eta plangintza egingen dira”

Zioak: Garrantzitsua da laguntza-maila ezberdinen arteko –egoitzak ere barne direla– koordinazio arina eta erabatekoa izatea, eta eremu sozio-sanitarioa planifikatzea. Erakundeek plangintzak egin behar badituzte da, besteak beste, pertsona guztiek ez dutelako gauza bera nahi izaten. Laburbilduz: altaren ondorengo baldintzak argitzea.

42. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa.

18. artikuluari –Giza kalitate eta kalitate zientifiko oneko osasun laguntza jasotzeko eskubidea– honako idatz-zatia gehitzea proposatzen dugu:

“4. Gaixoak boluntarioki eta libreki errefusatu duenean bere egoerari buruzko informazioa osasun arloko profesionalen eskutik jasotzea, haren erabakia errespetatu egingen da, eta galdetuko zaio ea nahi duen informazio hori pertsona jakinen bati komunika dakiola; nahi hori historia klinikoan jaso beharko da”

Zioak: Informaziorako eskubideari dagokionez, gaixoaren desioa begiratu beharko da beti.

43. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Osasun laguntza (...) tratu txarren biktimak, drogamenpeketasuna duten pertsonak, etorkinak; gutxiengo etnikoak, gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden talde zehatzak eta, oro har...”

Zioak: Talde horiek gehitu ditugu, zeren eta uste baitugu ikusgarri egin behar ditugula, eta, gainera, osasunaren arloko eskubide eta betebeharreri buruz hitz egiten dugunean, ezin gara banakako en alderdietan zentratu, eta ez dugu haietan zentratu behar, eta are gutxiago gaixotasun terminoeri buruz ari garela. Osasunerako eskubideei buruz hitz egiten dugunean, gizarteko determinanteak hartu behar ditugu kontuan, zeren eta eragina baitute sektore desberdinen osasun hobekuntzetan, programa zehatzak eginez ere. Hori dela eta, kolektibo bereziki sentiberatzen edo ahulagotzen hartu behar ditugu.

44. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Osasun Administrazioak (...) eta behar den kasuetan bideratuko du Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariarekin, Hezkuntza kontseilariarekin edo eskuduna denarekin egoki koordinatzea.

Era berean...”

Zioak: Osasun arreta orokorragoa da osasun laguntza baino. Gure asmoa ez sartzeari soilik osasun ekintzak. Kontzeptu berrian osasunaren sustapena ere sartzen da, beste zio batzuetan azaldukoaren bidetik.

45. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

21.1. artikulua ordez honako testu hau jarritza proposatzen da:

“Borondatzeko ospitaleratzeetan, baldin eta gaixoak senda-agiri boluntarioa eskatzen badu, gaixoaren erantzuleak bere kabuz erabakitzearen ahalmena baloratuko du. Sendagilearen iritziz gaixoak erabakitzearen gaitasunik ez badu, kasuko berrespen judiziala eskatu beharko du, ospitaleratzeak jarraitu dezan, Prozedura Zibileko Legearen 763. artikuluan ezarritako moduan”.

Zioak: Testua argiagotzea dela jotzen dugu.

46. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

21.2. artikuluko testua honako testu honekin ordeztzeko zuzenketa: “Nahitaezko ospitaleratzeak soilik egin ahal dira kode zibilean eta berriazko legeetan aurreikusitakoaren arabera, eta gaixoen eskubidea izanen dute aldizka beren ospitaleratzearen premia berriz ere azter dadin”.

Zioak: Gaixo mentalentzako berme bat da.

47. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

22. artikuluar 4. eta 5. idatz-zatiak gehitzeko zuzenketa.

“4. Osasun mentaleko laguntzako etika batzordea sortzea sustatuko da; batzorde horrek laguntza emanen du gaixoen, familiartekoen eta profesionalen interesak errespetatzen dituzten laguntzako protokoloak definitzeko, bai eta gaixotasun metaleko prozesuekin lotutako egoereri egokituak ekitate arauak ere.

5. Beren laguntzarako laguntza baliabide sozio-sanitarioak behar dituzten pertsonen kasuan, ziurtatuko zaie zerbitzu horietarako sarbidea izatea; zerbitzu horiek, izan ere, laguntza konplexua behar duten arazo konplexuen modalitateei laguntza emateko zerbitzuarekin koordinatu beharko dira”.

Zioak: Laugarren puntuaren kasuan, alde desberdinek –profesionalek, familiartekoei eta gaixoei– askotan izaten dituzten interes desberdinak koordinatu ahal izateko. 5. puntuaren kasuan, laguntzako etikaren ikuspuntutik prozesu guztian –eta ez soilik agerraldi larrietan– jarduketak bermatzeko.

48. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikulua ordez honako testu hau jarritza proposatzen da:

“24. artikulua.- Ezgaituak.

Foru lege honek helburu du Nazio Batuen Era-kundeko Nazioarteko Itunak ezgaituen eskubideei buruz aitortutakoak betetzea. Espainiak 2007ko

abenduaren 3an berretsi zuen itun hori, eta 2008ko maiatzaren 3tik dago indarrean.

Halaber, aplikatzekoak dira Aukera berdintasunari, diskriminazio ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legeko artikulua eta lege hori garatzeko xedapenak.

Gorrei, entzumenezko ezgaituei eta gor eta itsu direnei osasun laguntza egokia emateko eta horiek informaziorako duten eskubidea bideratzeko, administrazio publikoek hizkuntza-oztopoak ahal den guztian gutxitzeko behar diren jarduketak sustatuko dituzte. Nolanahi ere, administrazio publikoek Espainiako zeinuen hizkuntzak arautu eta gorren, entzumen-ezgaitasunak dituztenen eta gor-itsuen ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoak aitortzen dituen urriaren 23ko 27/2007 Legean ezarritako betebeharrak errespetatuko dira.”

Zioak: Erabateko irisgarritasuna ziurtatzea.

49. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluari 2. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

Testuaren amaieran honako hitz hauek gehitzea proposatzen da: “Horretarako, osasun zentroetan dauden oztopo arkitektoniko guztiak kendu beharko dira, eta behar diren mekanismoak ezarri beharko dira informazioa ezgaitu sentsorialeiei helarazteko, aplikatzeko den legediarekin bat.”

Zioak: Irisgarritasun fisiko eta sentsorialaren alderdi batzuk argitzen ditu.

50. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

26.3 artikulua amaieran ondoko testua sartzea proposatzen da:

“55.3 artikuluan ezarritako mugekin.”

Zioak: Testua argiago dela jotzen dugu.

51. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa.

26. artikuluko –Prozesu terminalak dituzten gaixoak– 4. idatz-zatiari honako testua gehitzea:

“Egoera terminalean edo hiltorian dauden pertsona guztiek eskubidea dute kalitatezko zainketa aringarri integralak jasotzeko. Egoera terminalean edo hiltorian dagoen gaixoak, nahi baldin badu, eskubidea du zainketa horiek Foru Komunitatearen esparruan berak hautatzen duen helbidean jasotzeko, betiere kontraindikaziorik ez badago.

Minaren tratamenduari dagokionez, gaixoak eskubidea du mina prebenitzeko eta arintzeko laguntza jasotzeko, sedazioa barne dela. Profesionalek eskubide horren berri emanen diote familiari, gaixoa egoera terminalean edo hiltorian dagoenean.”

Zioak: Badirudi proposatutako testua egokiagoa dela.

52. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

27. artikuluko testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dio ezer ere gehitzen proposamena-
ren testuari, zeren eta beste lege bat badagoela gogorarazi besterik ez baitu egiten. Ez da legegintzako praktika zuzena jada onetsita dauden beste lege batzuk aipatzea, arauko testua aldatzen ez bada behintzat.

53. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

28. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Egokiagoa da xedapen gehigarri baterako. Lege proposamenean aitorturiko osasun eskubideek atzerritarrengan eragina dute, 3. artikuluan 11. artikulua dela-eta ezarritakoaren arabera; izan ere, Nafarroan egoitza dutenak aipatzen dira, haien egoera administratibo eta legezkoa alde batera utzita. Halaber, pasadizoko pertsonak aipatzen ditu.

54. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

29.3 bis idatz-zatia gehitzea proposatzen da. Hauxe da artikulua berriaren testua:

“Jarduketa horietan beste profesional batzuk ere ageri direnean, zuzeneko erantzukizuna duten ikasleak nahiz ikerlariak izan, gaixoari horren xedeari buruzko informazioa emanen zaio, ahal dela, eta prestakuntza- eta ikerketa-premiak ere adieraziko zaizkio, halakorik badago”

Zioak: Proiektua hobetzea.

55. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Nafarroako osasun sistema publikoko (...) gaixoaren inguruabar bereziak direla-eta behar direnerako edo gaixoak eskatzen duenerako, arauz ezartzen...

Zioak: Pertsona guztiek ez dute gauza bera nahi izaten. Litekeena da batzuek banakako gela nahi izatea eta beste batzuek, berriz, ez.

56. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

31. artikuluari beste idatz-zati, 3.a, bat gehitzeko zuzenketa.

“3. Erregelamendu bidez, behar diren disuasio-ko zehapen administratiboak ezarriko dira konfidentzialtasunerako eskubideak ez daitezkeen urra, zigor arloan ezar daitezkeen zehapenak ezertan ere kendu gabe”

Zioak: 1. eta 2. puntuak kontuan izanda, eta jakinda historia klinikorako eskubidea urratzen dela, Administrazioa izan behar da zigorrak edo disuasio neurriak hartu behar dituenak, hori gerta ez dadin.

57. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

33.4. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

“..informazioa emanen zaio...” hitzen ondoren, honakoa gehituko da: “gaixoari berari eta” Testuaren gainerakoa berdin geratuko da.

Zioak: Proposamena hobetzen du, informaziorako eskubidea gaixoari berari ere zabaltzen baitzaio.

58. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

34. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez du zentzurik historia klinikoan artikuluan aipatutako datuak agertzea.

59. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

34. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Osasun-zentroek, -zerbitzuek eta –establezimenduek (...) erlijioari, sinesmenei, jatorri etnikoari, sexu-bizitzari...”

Zioak: Terminologia hutsezko kontu bat da. Gure ustez etnia hitza egokiagoa da 2. idatz-zatian adierazi nahi denerako. Eztabaidan dago arraza bakarrak giza arraza ote den, eta benetan daudenak etnia desberdinak ote diren.

60. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

35 artikuluan ondoko testua sartzea proposatzen da:

“Ez da ulertuko konfidentzialtasunari buruzko eskubidea urratu dela gaixo batek kontzienteki edo bere borondatez zeinuen hizkuntzako interpretearen edo familiarteko baten edo konfiantzako pertsona baten presentzia baimentzen duenean”

Zioak: Erabateko irisgarritasuna ziurtatzea.

61. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

36.1. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Testuaren amaieran hau gehitzea proposatzen da:

“Osasun-zentro, -zerbitzu eta –establezimenduek, behar den prozesu medikoaren amaieran, balio eta esanahi sanitariorik ez duen gaixoaren datu oro suntsituko dute, eta bereziki intimitate pertsonala eta familiarra gordetzeko garrantzia izan ditzaketen datuak eta informazioak”

Zioak: 34. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

62. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

36. artikuluari beste idatz-zati, 4.a, bat gehitzeko zuzenketa.

“4. Administrazioak pertsoneri buruzko datuak dauzkanean, pertsona bakoitzari ziurtatuko zaio datu horietara nor sartu den ezagutzeko, eta pertsona horiek eskubidea izanen dute, halaber, legeak edo erregelamenduzko prozedurak urratu diren kasuetan ofizioz salaketa egiteko. Kasua bada, kalte-ordainak jasotzeko aukerak, ez-betetzeetarako zehapenak eta erreklamazio edo salaketen aurreko bitartekaritzako epaitegiak aurreikusi eta arautuko dira.”

Zioak: Pertsona guztiek beren datuak ezagutzeko eskubidea dute, baina eskubidea dute, halaber, jakiteko nor sartzen den bere datuetan, horretarako zigorrak baitaude aurreikusita. Alabaina, Administrazioak gehiago inplikatu beharra dauka. Hori dela eta, komeni da ofizioz jardutea, eta ez beti epaitegi arruntan bitartez, baizik eta bitartekarien figura ere erabiliz; horrekin, izan ere, denbora eta dirua aurreztuko da.

63. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

37. artikuluari beste idatz-zati, 4.a, bat gehitzeko zuzenketa.

“4. Prozedurak sustatuko dira sarbide telematikoko prozedurak aurrera eramateko, erabiltzaileek zerbitzuen kartaren harira beren osasunari buruzko edo agintariak ematen dituzten tresnei buruzko informazioa izan dezaten”

Zioak: Herritarrek jabetu behar dute agintariak daukaten garrantziaz eta inplikatu egin behar dira; horretarako, ordea, bitartekoak eman behar zaizkie.

64. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

38.4.c) artikulua kentzeko zuzenketa.

Honako testua kentzea: “Gida horiek erabiltzailearen eskura egonen dira foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean. Gida horiek egitura erraz eta argia izanen dute, eta erraz ulertzeko modukoak izanen dira”

Zioak: Xedapen horiek egokiagoak dira xedapen iragankor baterako.

65. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

39. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Pertsona, elkarte edo erakunde guztiek eskubidea dute (...), bai eta kalitate hori egiaztatzen duten erakunde edo antolamenduak ere. Emaitzek adierazleen bitartez eskuratzeko modukoak izan beharko dute, errekurtsioak eta haiek bermatzeko aurreikusitako prozesua bezalaxe. Halaber, gaixo bakoitzak eskubidea du bere banakako laguntza prozesuan emandako osasun laguntzaren bitartekoak, prozesua eta emaitzak ezagutzeko”

Zioak: Gure ustez, osasunaren alde lan egiten duten elkarte eta erakundeak ere sartu behar dira, zeren eta beren elkartekideei azalpenak emateko modua behar baitute. Gainera, uste dugu hobeki idatzita geratzen dela dauden errekurtsioak eta prozesua eta banakako prozesu bateko osasun laguntza orokorra ezagutzeko eskubideari dagokiona.

66. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

40 artikuluan ondoko testua sartzea proposatzen da:

“Nafarroako Gobernuak webguneak eta informazio hau transmititzeko hedabide ofizialek azararen 12ko 1494/2007 Errege Dekretuan jasotako irisgarritasun baldintzei buruzko baldintzak bete beharko dituzte; izan ere, errege dekretu horren bidez, ezgaitasunen bat duten pertsonen informazioaren gizartearekin eta hedabideekin lotutako teknologietarako, produktueterako eta zerbitzueta-

rako sarbidea izatearen gaineko erregelamendua onetsi zen.”

Zioak: Erabateko irisgarritasuna ziurtatzea.

67. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

40.1 artikuluan, “egiazko” hitza sartzea proposatzen dugu, “...informazioa emanen du...” hitzen aurretik.

Zioak: Testua argiagoa dela jotzen dugu.

68. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

41. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Osasunaren arloko informazioa (...), laguntza emateko zerbitzuen jarduera eta lana ziurtatuko ditu...”

Zioak: Eskubideak bermatzea nahi badugu, Administrazioak haiek ziurtatu behar ditu, eta ez indartu, zeren eta indartzeak ez baitu esan nahi haiek bermatzen dituenik.

69. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

43.2. artikulua ordeztzeko zuzenketa.

Testua honako honekin ordeztea proposatzen dugu:

“Emantzipatu gabeko adingabeen, babesgabekotasun egoeran daudenen edo birgaitutako guraso-ahalgopean daudenen kasuetan, bai eta ezgaitutzat deklaraturik daudenen kasuan ere, haien guraso edo tutoreak izanen dira haien osasunari buruzko informaziorako eskubidearen titullarrak; hori, halere, ez da oztopoa izanen gaixoak bere osasunari buruzko informazioa jasotzeko eskubiderako, adinaren, heldutasunaren eta egoera psikologikoaren arabera hizkuntza batean.”

Zioak: Proposamenaren testua hobetzen du, informaziorako eskubidea guraso eta tutoreei zabaltzen baitie, antolamenduaren arabera berez behar adinako gaitasuna ez duten gaixoen kasuan.

70. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

44.1 artikuluan, gaztelaniazko testuko “prejuicio” hitzaren ordez “perjuicio” hitza jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Idazketa akatsa bat zuzentzen da horrela.

71. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

44. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Osasun-zentro, -zerbitzu (...) informaziorako eskubide hori beteko dela ziurtatzeko. Horretarako, foru lege honek indarra hartu eta sei hileko epean, erregelamendu bat egingen da, non sartzeko eskubidea eraginkor egieko prozedurak jasoko baitira.”

Zioak: Gure ustez, oso garrantzitsua da 1. idatz-zatian azaldutakoa arautzea, eta, gainera, uste dugu, halaber, eta lehendik ere adierazia dugu, garrantzitsu8a dela bitartekaritzako organoak egotea gatazkak ebazteko, epaitegi arruntetara jo beharrik izan gabe, eta horrek ere araututa egon behar du.

72. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

46.2. artikulua kenzeko zuzenketa.

Zioak: Oso nahasia da aitortutako eskubideak norengan duen eragina.

73. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

46. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Aitortzen da herritarrek (...) eskubidea dutela Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Osasun Departamentuaren jardueretan parte hartzeko, bai eta departamentuen arteko organoen jardueretan ere, betiere arauz (...)”

Zioak: Parte-hartzea hobeki jasota ageri da, eta zabalagoa da.

74. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

47.2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Epeei buruzko “eta 20 egun naturaleko epean” aipamenaren orde, honako hau jartzea: “eta erregelamendu bidez ezartzen den epean”.

Zioak: Behar adinako malgutasuna gehitzen du, osasun arloko administrazioak behar bezala bateragarri egin ditzan gaixoaren interesa eta osasun sistemak erantzuteko gaitasuna.

75. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

47.4. artikulua testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dirudi egokia denik anonimotasuna babestea eta, gainera, testua ez da ongi ezkonzen erantzuteko betebeharra dela-eta 47.2 artikuluan ezarritakoarekin.

76. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

47. artikuluari beste idatz-zati, 5.a, bat gehitzeko zuzenketa.

“5. Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak ebazteko izapidetako, bitartekaritzako organo bat sortuko da, zeinak izapidetzearen xede diren egoerak aztertu eta adiskidetasunezko konponbideak proposatuko baititu, bide judizialaren edo administrazioaren alternatiba gisa. Organo horretan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hartuko du parte, eta aintzat hartu beharreko alderdi juridikoei buruzko aholkua emanen du. Haren proposamenak, adostasunik izanez gero, aurkeztutako errekurtsioa ebazteko lehenengo aukera gisa hartuko dira.”

Zioak: Gure ustez, oso garrantzitsua da 1. idatz-zatian azaldutakoa arautzea, eta, gainera, uste dugu, halaber, eta lehendik ere adierazia dugu, garrantzitsu8a dela bitartekaritzako organoak egotea gatazkak ebazteko, epaitegi arruntetara jo beharrik izan gabe, eta horrek ere araututa egon behar du.

77. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

48.3. artikuluko testua honako testu honekin ordeztzeko zuzenketa:

“Emantzipatu gabeko adingabeen erabakia, babesgabetasun egoeran daudenen edo birgaitutako guraso-ahalgopean daudenen kasuetan, bai eta ezgaituzat deklarata daudenen kasuan ere, gurasoiei edo tutoreei egokituko zaie”.

Zioak: Ordezteko proposatu den testuak daukan ziurgabetasun juridikoa kentzen du.

78. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

49. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Pertsona bati osasun arretaren esparruko edozein interbentzio (...) Baimen horrek (...)”

Zioak: Osasun arreta orokorragoa da osasun laguntza baino. Gure asmoa ez sartzeari soilik osasun ekintzak. Kontzeptu berrian osasunaren sustapena ere sartzen da, beste zio batzuetan azaldutakoaren bidetik.

79. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

49.2 artikuluko testuko amaierako esaldia honakoarekin ordeztzeko zuzenketa: “Informazio hori historia klinikoan jasoko da”.

Zioak: Esaldiaren gainerakoa jada 49.8 eta 49.9 artikuluetan ageri da.

80. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

49. artikuluko 5. idatz-zatiari beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa.

“5. Baimen informatua (...) osasun profesionalaren betebeharra. Baimena informazio prozesu baten emaitza da; gaixoak, berriz, informazio hori ulertu egin behar du eta garrantzia emanen zaio komunikazio-prozesuari, eta ez soilik agiri izenpe-tu bat lortzeari”.

Zioak: Bi gauza desberdin dira baimen informetua eta baimen izenpetua. Garrantzitsuena da gaitxoak informazioa ulertzea.

81. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

50. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Adierazitakoa 49.3 eta 49.4 artikuluetan jasota dago.

82. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

53.1. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreikusitakoa 49.2 artikuluan jasota dago.

83. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

53.3 artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

f. bis) letra berria gehitzea proposatzen da. Hauxe du testua:

“f. bis. Prozeduraren identifikazioa eta deskribapena, irizpide medikoen arabera muntakoak eta garrantzitsuak diren gai guztiak jasoz.”

Zioak: Gaixoari eman beharreko informazio mota osatzen du.

84. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko zuzenketa.

55.1.b) artikuluko testuan, “legez” hitzaren ordez “judizialki” hitza erabiltzea.

Zioak: Proiektua hobetzea.

85. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

57.1 artikuluko testua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“..aplikatzen zaizkion...” hitzen ordez “..aplikadakizkiokeen...” hitzak erabiltzea.

Zioak: Bilatzen denerako agerikoak diren arrazoiengatik.

86. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 63. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Erregelamendu bidez, historia klinikoak sunsitzeko prozedura ezarriko da, legez jasotako kasuetan, bai eta ikuspuntu zientifikotik beren garrantzia dela-eta muntakoak izan daitezkeen datuak kontserbatzeko prozedura bat ere”

Zioak: Proposamenaren zentzua osatzen du.

87. ZUZENKETA

NaBai

68. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Gaixo guztiak eskubidea izanen dute (...) kasuko osasun profesionalak eginen ditu, eta alta emateko unean emanen dira”

Zioak: Gaixoak ahal den informazio gehienarekin atera dadin, eta gero ez daitezzen ahanzturaredo galera-arazoak, besteak beste.

88. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

70. artikuluko testua aldatzeko zuzenketa. Honako hitzak kentzea nahi da: “haiek idatziz jasotzea”

Zioak: Ezin da ulertu herritarrak osasuna dela-eta egiten ditueni buruzko egunkari bat eraman behar izatea.

89. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

70. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Foru lege honen esparruan (...) dauden aukeren artean hautatutako diagnosi- edo terapia-bide-

ei buruzko erabakiak idatziz jasotzea, eta senda-agiria sinatzea (...):”

Zioak: Argi uztea osasunari buruzko erabakiak diagnosiari eta neurri terapeutikoei dagozkiela.

90. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

71. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Nafarroako Osasun Administrazioak (...), osasunaren babesarekin, edo osasun publikoa hobetzeko eraginkortasun aitortua duten neurriekin, besteak beste tabakoa, alkoholismoa eta laneko istripuak bezalako arazoen aurrean.

Txertoen bidez edo bestelako prebentzio neurrien bidez aurrea hartzeko modukoak diren gaixotasun kutsagarrien aurrean, haietan banakako erabakiak garrantzitsuak baitira prebentziorako, jokabide osasungarriak izatea sustatuko da, lehen-tasuna emanez haiek hartzen dituzten pertsonen interesei, osasunerako erabaki kaltegarriak hartzen dituzten pertsonen interesen aurrean, interesen talkarik izanez gero.”

Zioak: Idazketa kontu bat da. Gure ustez, egoikiagoa da osasun publikoa hobetzeko eraginkorrak diren neurriei buruz hitz egitea, osasun publikorako mehatxuei buruz hitz egitea baino; halaber, lankidetzarako betebeharrak bultzatu behar dira.

91. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

75.2 artikuluan ondoko testua sartzea proposatzen da:

“Horretarako, Osasun Administrazioak osasun-langileen aurkako erasoen erregistro-sistema bat sortzea sutatuko du, eta haien prebenitzeko eta zuzentzeko behar diren jarduera-prozedurak landuko ditu.”

Zioak: Profesionalek balizko erasoen aurrean erabateko babesa eduki beharko dute beren lan esparruan.

92. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

75. artikuluko 7. idatz-zatia honako testu honekin ordeztzeko zuzenketa:

“7. Kontzientzia eragozpenerako eskubidea.

Espainiako Konstituzioak eta kasuko lanbide elkargoetako kode deontologikoei babestutako kontzientzia eragozpenerako eskubidea zaindu eta ziurtatuko zaie osasun arloko profesional guztiei.”

93. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

75.7 artikuluko testua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“7. Kontzientzia eragozpenerako eskubidea. Inongo kasutan ere ez da gertatuko kontzientzia eragozpenerako eskubideak muga edo baldintza bat izatea gaixoen osasun zerbitzuen zorroan finkatuta dauden osasun- eta laguntza-prestazioak jasotzeko duten eskubiderako. Eragin horietarako, Nafarroako osasun sistemak behar diren ekintzak eramanen ditu aurrera.”

Zioak: Kontzientzia eragozpena eskubide konstituzional bat da, Espainiako Konstituzioak aitortua. Estatutuari dagokio hura arautzea.

94. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

75. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“7. Kontzientzia eragozpenerako eskubidea.

Haurdunaldiaren borondatezko eteteen zuzenean inplikaturik dauden osasungintzako profesionalak. Aukera horrek eragina izanen du soilik egintza kirurgikoan parte hartzen duten medikuntzaren eta erizaintzaren arloko profesionalengan.

Administrazioak zainduko du Inongo kasutan ere ez da gertatzea (...) haurdunaldiaren borondatezko etetea gauzatzeko eskubiderako.

Hori dela eta, aukera izanen du zuzenean kontratatzeko beren aukeretatik kontzientzia eragozpena baztertzen duten pertsonak, eta, aldi berean,

jarraibideak emanen dizkie inplikaturako zerbitzuei eskatzen duen emakume orori prestaziorako eskubidea ziurtatzeko, lege-esparru indardunaren arabera.”

Zioak: Haurdunaldiaren borondatezko etetea aipatzen dugu uste dugulako kontzientzia eragozpenak soilik eragina izan behar duela egintzan parte hartzen dutenengan, eta ez borondatezko etetean inplikaturako daudenengan —esate baterako, zeladoreek gaixoa eramaten dute, baina ez dute praktika horretan esku hartzen—. Mugatu beharra dago zeinek daukaten kontzientzia eragozpenerako eskubidea; esate baterako, sukaldian lan egiten dutenak ez du kontzientzia eragozpenerako eskubiderik, ezin du alegatu haurdunaldiaren borondatezko etetea erabaki duen emakume batentzako jatorduak prestatzen dituela.

Administrazioa da bi eskubideak betetzen direla zaindu behar duena: kontzientzia eragozpenerako eskubidea eta haurdunaldiaren borondatezko eteterako eskubidea. Administrazioak ezin du sekula kontzientzia eragozpenik egin; izan ere, bi eskubideak betetzen direla zaindu beharra dauka.

95. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

75.7. artikulua ordez honako testu hau jarritzea proposatzen da

“7. Kontzientzia eragozpena.

Haurdunaldiaren borondatezko etetean zuzenean inplikaturiko osasun arloko profesionalen eskubidea izanen dute kontzientzia eragozpenaz baliatzeko, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoan ezarritako moduan”.

Zioak: Teknika juridiko hobea da 2/2010 Lege Organikoko 19.2 artikulura igortzea.

96. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

75 artikuluan ondoko testua sartzea proposatzen da:

“Bere lanposturako arrazoizkoak diren irisgarritasun neurri eta doikuntza guztiak edukitzeko”.

Zioak: Erabateko irisgarritasuna ziurtatzea.

97. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

80. artikulua ondorengo artikulua gisa honako testua sartzea proposatzen dugu:

“Ezgaitasunaren ondoriozko aukeren berdintasunaren, bazterketa ezaren eta irisgarritasunaren arloko arau-hausteak eta zehapenak.

Aukeren berdintasunaren, bazterketa ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren arloko arau-hauste administratiboren bat egiten dutenei zehapena ezarriko zaie, Ezgaitasunaren bat duten pertsonen aukera berdintasunaren eta irisgarritasun unibertsalaren alorreko arau-hausteei eta zigorre buruzko abenduaren 26ko 49/2007 Legean ezarritakoaren arabera. Hori, halere, ez da eragozpena izan zigor arloko edo beste maila bateko gainerrako erantzukizunetarako.

Honakoak izanen dira 49/2007 Legean araututako zehapenak ezartzeko organo zehatzaile eskudunak:

1. Nafarroako Gobernua da arau-hauste oso larriengatik zehapenak ezartzeko organo eskuduna.

2. Osasun kontseilaria da zehapen larriak ezartzeko organo eskuduna.

3. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzailea da zehapen arinak ezartzeko organo eskuduna.”

Zioak: Erabateko irisgarritasuna ziurtatzea.

98. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Administrazio publikoek, erregelamendu bidez ezartzen den moduan eta dauzkaten aukera errealekin arabera, behar diren neurriak hartuko dituzte gatzelaniaz ez dakiten osasun sistemako erabil-tzaileek sistema horretako profesionalekin ahal den gutxiena komunikatu behar izateko”.

Zioak: 27. artikuluko zuzenketaren justifikazioarekin bat etortzea.

99. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“38.4.c) artikuluari buruzko gidak erabiltzaileen eskura eginen dira foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean; egitura erraz eta argia izanen dute; erraz ulertzeko modukoak izanen dira eta aldizka gaurkotuko dira”.

Zioak: 38.4. artikuluko c) letrari aurkeztutako zuzenketarekin bat.

100. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetako bigarrena honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

“Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta sei hilabetera hartuko du indarra.

Zioak: Hutsaldi zuhurra da hori, ukituek hura ezagutzeko aurka izan dezaten eta administrazioak kasuko erregelamenduak idatz ditzan.

101. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenean beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa: zioen azalpeneko II. ataleko bigarren lerrokadaren ondoren.

“2010eko martxoko dokumentua, Lurraldean arteko Kontseiluak aho batez erabakitakoa, “osasu sistema nazionalen kalitatea, ekitatea, koheretia eta iraunkortasuna sustatzeko ekintzak eta neurriak” izenekoa, erreferente berdin ezinbestekoa da, adostutako modu batez baieztatzen baitu osasuna sustatzeko orientabideak eta gaixotasunei aurrea hartzea, bai eta oinarritzko osasun laguntzan oinarritutako garapena ere, sistemaren arrakastaren gakoak direla, eta, horrenbestez, indartu egin behar direla, iraunkortasuna eta bikaintasuna lortzeko”.

Zioak: Gure ustez, garrantzitsua da zioen azalpenean 2010eko martxoan sinatutakoa jasotzea, zeren eta testuak berak dioten bezala, osasun sistemaren kalitatea, ekitatea eta koheretia bermatzen dituzten osasun politikak, besteak beste,

oinarritzko osasun laguntzan eta osasunaren sustapenean eta gaixotasunei aurrea hartzean kokatu behar baitira.

102. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko III. ataleko lehenengo lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“Estatuko eta foru erkidegoko legedi hori erreferentzia gisa hartuta, (...) eta zenbait tresna ezartzea herritarrek, kolektibo gisa, protagonista izan daitezten osasun arloko erabakiak hartzeko prozesuan, hala osasun publikoaren arloan (...), haien segurtasun juridiko osasungintzaren arloko profesionalena, eguneroko jardunean, areagotuz”.

Zioak: Gure ustez, horrela idatzirik, hobeki jasotzen du osasunerako eskubideak ez duela soilik hartzen osasun arreta beharrezkoaren eta egoziaren kontzeptua, baizik eta, baita ere, osasuna determinatzen duten faktore nagusiak; esate baterako, osasun baldintza egokiak, nutrizio egokia, etxebizitza egokia, lanean eta ingurumenean baldintza osasungarriak edukitzea eta hezkuntzarako sarbidea, besteak beste. Hori dela eta, osasun arloko profesionalen kontzeptuaren ordezkari osasungintzaren arloko profesionalen kontzeptua erabiltzen dugu, osasunerako eskubidearen kontzeptu zabalagoa erabiliz.

103. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko III. ataleko bigarren lerrokada (4. orrialdea) aldatu eta zioen azalpeneko III. atalaren bukaeran beste lerrokada bat gehitzea.

“Helburu horiek erdiesteko, foru legeak (...) osasunaren arloari buruzko erabakietan eta beren gaixotasun prozesuaren kudeaketan, bai eta osasunarekin lotutako gainerako alderdi guztietan ere.

Bestalde, foru legeak osasunaren arloan lan egiten duten osasun profesionalen eskubideak eta betebeharrak ere modu sistematikoan arautzen ditu.

Azkenik foru legeak administrazio guztien betebeharrak arautzen ditu; izan ere, elkarrekin lan egin behar dute eta ukitutako gizarte sektoreen parte-hartzea erraztu behar dute, Nafarroako gizarte osoaren bizi-estiloetan eragina duten osasun arloko hobekuntzak lortzen lan egiteko”.

Zioak: Gure ustez, horrela idatzirik, hobeki jasotzen du osasunerako eskubideak ez duela soilik hartzen osasun arreta beharrezkoaren eta egoikiaren kontzeptua, baizik eta, baita ere, osasuna determinatzen duten faktore nagusiak; esate baterako, osasun baldintza egokiak, nutrizio egokia, etxebizitza egokia, lanean eta ingurumenean baldintza osasungarriak edukitzea eta hezkuntzarako sarbidea, besteak beste. Hori dela eta, osasun arloko profesionalen kontzeptuaren ordez osasungintzaren arloko profesionalen kontzeptua erabiltzen dugu, osasunerako eskubidearen kontzeptu zabalagoa erabiliz.

104. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko IV. ataleko lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“Foru legeak (...): ezgaituak, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak, prozesu terminalak dituzten gaixoak, transexualak, atzerriko herritarrak, gutxiengo etnikoak, gizarte bazterketarako arriskua duten pertsonak eta, bereziki, gaixo mentalak”

Zioak: Talde horiek gehitu ditugu, zeren eta uste baitugu ikusgarri egin behar ditugula, eta, gainera, osasunaren arloko eskubide eta betebeharreri buruz hitz egiten dugunean, ezin gara banakakoen alderdietan zentratu, eta ez dugu haietan zentratu behar, eta are gutxiago gaixotasun terminoeri buruz ari garela. Osasunerako eskubideei buruz hitz egiten dugunean, gizarteko determinanteak hartu behar ditugu kontuan, zeren eta eragina baitute sektore desberdinen osasun hobekuntzetan, programa zehatzak eginez ere. Hori dela eta, kolektibo bereziki sentiberatzat edo ahulagotzat hartu behar ditugu.

Foru Lege proposamena, Jagoletza Partekatuari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko irailaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Jagoletza Partekatuari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu zuen eta 2010eko ekainaren 8ko

64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, hedabide sozialetan baztertzailleak diren edo pertsonen duintasuna urratzen duten publizitate-edukiak argitaratzearen aurkako neurriak sustatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko irailaren 23an egindako Osoko Bilkuran, hedabide sozialetan baztertzailleak diren edo pertsonen duintasuna urratzen duten publizitate-edukiak argitaratzearen aurkako neurriak sustatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Unión

del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2010eko ekainaren 18ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko irailaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2010eko ekainaren 18ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan produkzio integratuko marka bat sor dezan Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorerako.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko irailaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan produkzio integratuko marka bat sor dezan Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorerako".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan produkzio integratuko marka bat sor dezan Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorerako

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren urratsak egin ditzan, Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorearekin batera, produkzio integratuko marka bat sor dezan Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorerako.

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroan bete dadin Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko irailaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroan bete dadin Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Estatuko
Gobernua premiatzen da beharrezkoak
diren neurriak har ditzan Nafarroan
bete dadin Sexu- eta Ugalketa-osasuna-
ri eta Haurdunaldiaren Borondatezko
Etendurari buruzko martxoaren 3ko
2/2010 Lege Organikoa**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroan bete dadin martxoaren 3ko Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko Lege Organikoa.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren jokaera gaitzesten du, erakundeen erabilera sektarioa egiteagatik haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidearen erabilerari dagokionez, eta legedia osorik eta leialki bete dezan exijitzen dio.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko irailaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren jokaera gaitzesten du, erakundeen erabilera sektarioa egiteagatik haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidearen erabilerari dagokionez, eta legedia osorik eta leialki bete dezan exijitzen dio".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako
Parlamentuak Nafarroako Gobernu-
aren jokaera gaitzesten du, erakunde-
en erabilera sektarioa egiteagatik
haurdunaldiaren borondatezko eten-
durarako eskubidearen erabilerari
dagokionez, eta legedia osorik eta lei-
alki bete dezan exijitzen dio**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren jokaera gaitzesten du, erakundeen erabilera sektarioa egiteagatik Nafarroan haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidearen erabilerari dagokionez, eta indarrean dagoen legediaren betetze erabateko eta leialarekiko duen intsumisio-jarrerarengatik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio erabat eta leialki bete dezala Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legea, eta, ondorioz, lege horren aurka aurkeztutako konstituziokontrakotasun-errekurtsua ken dezala.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegiturei buruzko hitzarmena egin dezan Estatuarekin, zenbait obra bukatzeko epea ezartze aldera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegiturei buruzko hitzarmena egin dezan Estatuarekin, zenbait obra bukatzeko epea ezartze aldera."

Legebiltzarrak 2010eko irailaren 23an egindako

Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Parlamentuan aurkez dezan Nafarroa 2012 Planari dagokionez egiteko asmoa duen murrizketa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Parlamentuan aurkez dezan Nafarroa 2012 Planari dagokionez egiteko asmoa duen murrizketa."

Legebiltzarrak 2010eko irailaren 23an egindako

Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Transferentzia Batzordea premiatzen da zenbait eskumen eskualdatzeko eta bereganatzeko negoziazioak susta ditzan.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Transferentzia Batzordea premiatzen da zenbait eskumen eskualdatzeko eta bereganatzeko negoziazioak susta ditzan."

Legebiltzarreko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2010eko irailaren 22an eginda-

ko bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko uztailaren 2ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gripearen aurkako txertoen erosketa hitzar dezan Osasun eta Gizarte Politika Ministerioarekin, osasun publikoaren aurrekontuan aurrezte aldera.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2010eko irailaren 21ean egindako bileran, erabaki zuen Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gripearen aurkako txertoen erosketa hitzar dezan Osasun eta Gizarte Politika Ministerioarekin, osasun publi-

koaren aurrekontuan aurrezte aldera, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Mozio hori 2010eko ekainaren 18ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

